

UPV/EHUko Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017)

EUSKARA ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE EUSKARA

erman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Aurkibidea

1. Sarrera: aurrera egiteko plana	5
2. Euskararen egoera unibertsitatean	9
2.1. Ikasleak	10
2.2. Irakasleak	14
2.3. Irakaseskaintza	16
2.4. Administrazio eta zerbitzuetako langileak	17
2.5. Euskarazko materialak	23
2.6. Aurreko Planaren helburuak	26
3. Helburuak	31
4. Jarduera eremuak	37
4.1. Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak: hizkuntza-eskakizunak, erabilera-planak eta ikastaroak	37
4.2. Euskarazko irakaseskaintza	54
4.3. Irakasle eta ikertzaileen oreka linguistiko eta akademiko handiagorantz	61

4.4. Euskarazko testugintza	62
4.5. Hizkuntza-prestakuntza	66
4.6. Ikerketa eta zabalkundea	68
4.7. Euskararen erabilera unibertsitatean	70
4.8. Euskara Zerbitzua	74
4.9. Beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana	75
5. Planaren indarraldia eta finantziazioa	77
6. Plangintzaren jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleak eta ekimenak	79

1.

Sarrera: aurrera egiteko plana

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutueta **lehen artikuluan** bertan¹, honako hau adierazten da: «UPV/EHU zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Erakunde autonomiaduna da, nortasun eta ahalmen juridikoak dauzkana, bai eta ondare propioa ere. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa, kultura eta unibertsitate hedakuntza, eta bere jardueren oinarri diren kudeaketa prozesuak eta zerbitzuak. UPV/EHUk bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko konpromisoa. Bestalde, euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturek eka-rritakoei ere. Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki.»

Aurrerago, **4. artikuluan**, helburuei buruz ari denean, honako hau aipatzen da: «euskararen garapena eta normalizazioa indartzea, bere eskumenen eremuan»; eta **8. artikulua**k, berriz, hiru puntu hauek ditu:

1. UPV/EHUko hizkuntza ofizialak euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, eta gaztelania dira.

¹ 2011ko otsailaren 24an EHAAn argitaratua.

2. UPV/EHUK arreta berezia eskainiko die euskal kulturari eta euskarari, esparru zientifiko eta teknikoan nagusiki.
3. *UPV/EHUK neurriak hartuko ditu euskararen erabilera normaltzeko unibertsitateko irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazioaren eta zerbitzuen alorreko jardueran.*

Era berean, 2011ko otsailaren 24an EHAAn argitaraturiko Estatutuetan, IV. Titulua Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokio, eta han adierazten dira UPV/EHUko hizkuntza ofizialak zeintzuk diren, eta unibertsitateko kideen eskubideak, 115 eta 116. artikuluetan:

«115. artikulua. 1. UPV/EHUK euskararen eta gaztelaniaren erabilera normal eta ofiziala bermatuko du, bere eskumenen eta eginkizunen eremuan.

3. UPV/EHUK euskararen erabilera normaldua bultzatuko du, eta unibertsitateko kideek hizkuntza hori ikasi eta eguneratu dezatela sustatuko, horretarako izango dituen planen arabera.

4. UPV/EHUK euskararen normalkuntzarako Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako arauak beteko ditu.

116. artikulua. 1. *Unibertsitateko kideei eskubide hauek aitortzen zaizkie:*

- a) Hizkuntza ofizialetako edozeinetan jardutea.
- b) Hizkuntza ofizialetako edozeinetan izatea harremanak UPV/EHUko organoekin.
- c) Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea.
- d) Ikerlanak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin, argitaratu eta defendatzea.

2. UPV/EHUko organo guztiek, dagokien eskumenen esparruan eta Campus ikuspegia kontuan hartuta, eskubide horiek errespetatu egingo direla eta urratuko ez direla bermatuko dute.»

Beraz, argi dago **115. artikuluko** 3. puntuan adierazten den bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak planak bideratu behar dituela euskararen erabilera normaldua bultzatzeko eta uni-

bertsitateko kideen eskubideak bermatzeko. Plan horrek, aurretik aipaturiko UPV/EHUko estatutuetan oinarritzeaz gain, honako lege hauek hartu behar ditu kontuan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomi Estatutua (1979),
- Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legea (1982),
- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen dekretua; izan ere, dekretu honek 1982ko lege hori arautzen du, eta 2. artikulua f) letran ezartzen du Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetan diharduten langileak esparru honen barruan daudela; eta
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea (2004). Azken horrek, bere **bigarren artikuluan**, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak euskararen erabilera sustatzera bultzatzen ditu: «(...) *irakaskuntza, ikerketa eta ekimen kulturalak koordinatuz (...), eta aipatutako unibertsitate-erakundeetako ikasle zein irakasleen arteko mugikortasunaren bidez (...).*»

Era berean, aurreko planak ere (1990eko eta 1999ko Euskararen Erabilerearen Normalizaziorako Planak, 2007/08-2011/12 Euskararen Plan Gidaria eta haren luzapen-egokitzapena) kontuan izango dira plan berria egiteko orduan.

Europako Unibertsitate Eremuaren arabera, tituluen moldaketarako prozesua izan zen azken Plan Gidaria baldintzatu zuen elementu nagusietako bat. Prozesu horrek aurrera jarraitzen du; gradu guztiak 2013/14 ikasturte honetan ezarriko dira, eta graduondoak hurrengo urteetan. Alde horretatik, aurreko Plan Gidarian esaten zen bezala, «*plan berriak ezin du izan xehetasunez josiriko dokumentu itxia; bada, malgutasuna izan behar du datozen urteetan sortuko diren egoerei zentzuz eta tentuz erantzuteko*», baina dokumentu itxia ez izan arren, argi dago oraingo egoera duela urte gutxikoa baino askoz egonkorragoa dela titulazioei dagokienez.

Inork ez du zalantzatan jarriko azken urte hauetan UPV/EHUUn euskararen egoerak izaniko aldaketa, ezta Unibertsitatearena berarena ere. Gradu eta graduondoko ikasketak Europako Markora moldatu dira, nazioarteratze-prozesu batean murgildurik gaude, ikerketaren arloan aurrerapen handiak egin dira eta gizarteko esparru gehiagotan nabari da Unibertsitatearen eragina. Arlo horietan guztietan, Unibertsitateak aurrera egin du, bai eta euskararen presentziak ere. Bide honetan, gure mami eta erlazio sozialetarako gune erreal eta birtualak sortu eta landu behar ditugu, eta horretarako zentroetako Euskara Batzorde dinamiko eta ahaldunak beharrezkoak dira azpitik gora ere euskararen erabilera sustatzeko.

Plana diseinatzeko orduan, beraz, aurreko planetako esperientziaz gainera, kontuan izango ditugu UPV/EHUK onarturiko 2012-2017 Plan Estrategikoa, 2011-2014 Ikerketa Plana edo Eusko Jaurlaitzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2013ko martxoan aurkezturiko «*Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan. IV. plangintzaldia (2008-2012) Ebaluazio txostena*» izeneko dokumentuak ere. Azken honetan bertan adierazten den bezala, planak ku-deaketa eraginkorra izan behar du, eta jarraipena egin behar zaio.

Hemen aurkezten dugun plan honek, herri administrazioetako V. Plangintzarekin bat eginenez, 2013-17 indarraldia izango du, bere baitan hartuz 2013. urtean aurreko plangintzaren luzapena.

UPV/EHU sortu zenetik, erakundeak euskararen aldeko jokabide argia erakutsi izan du beti, eta oraingo plan honetan ildo horretatik jarraitzeko asmoa adierazten dugu; urteetan unibertsitate elebidun baten alde eginiko ildotik. Aurreko Plan Gidarian adierazten zen bezala, «*Plan Gidari honen (...) helburua izanik bi komunitate linguistikoentzat gustukoa izango den unibertsitatea sortzea, eta bakoitzak egiten duen hizkuntza-aukera oztopo ez izatea unibertsitateko talde desberdinek beren eginkizunak betetzeko orduan, irakaskuntza, administrazio nahiz ikerketa-arloan.*» Helburu hori lortzeko, herritarrak euskaraz edo gaztelaniaz eroso senti daitezzen beren jardunean, oraindik erronka handiak dauzkagu aurrean. Hauei aurre egiteko, beharrezkoa da erakunde-ordezkarien lidergoa; UPV/EHUko ordezkariek, zuzendaritza taldeetakoek nahiz sail edo ikastegietako ordezkariek, eredu eta erreferente izan behar dute. Baina lidergo hori partekatu egin behar da, euskara zeharkotasunez landuz irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langile eta ikasleen artean ere. Horregatik, euskarak aurrera egingo badu, unibertsitatean bertako ordezkarien konpromisoa eskatzen du, baina baita UPV/EHUko partaide guztiona ere.

2.

Euskararen egoera unibertsitatean

UPV/EHU Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa da, eta Euskal Herriko errealitateari lotua. Alde horretatik, unibertsitateko euskararen azterketa egiteko orduan, kon-tuan izan behar dugu gure inguruko egoera lingustikoa. EUSTATEk erakusten duen bezala, UPV/EHUren inguruko biztanleak gero eta euskaldunagoak dira; are gehiago, EAEn 1981etik aurrera etengabea izan da euskalduntze-prozesua, taula honetan ikus daitekeen bezala:

Bi urte eta gehiagoko Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren bilakaera, euskara-mailaren arabera (%)

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011
Euskaldunak	21,56	24,58	26,28	30,88	32,31	37,39	37,24
Ia euskaldunak	14,47	17,42	19,84	19,72	23,12	22,14	25,55
Erdaldunak	63,97	57,99	53,88	49,40	44,57	40,46	37,20
Bi urte edo gehiagoko bizilagunen kopurua	2.076.448	2.089.995	2.068.927	2.062.525	2.033.247	2.072.541	2.119.586

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua 2001-2011 eta Biztanleria eta etxebizitza estatistika 1996-2006. www.eustat.es

2.1. **Ikasleak**

Oro har, gizarte osoko datuak esanguratsuak badira ere, Unibertsitatearen ikuspuntutik are garrantzitsuagoak dira gure ikastegietara ikastera datozen ikasleei buruzkoak. Alde horretatik, guztiz garrantzitsua da ikasle horien bilakaeraren jarraipena egitea.


Gaur egun D eredua nagusitzen ari da unibertsitatekan kanpoko araubide orokorreko irakas-kuntzetan, eta A eredua, aldiz, gero eta pisu gutxiagokoa dugu; honek guztiak bere isla du unibertsitate sartzeko Hautaprobak egiten dituzten ikasleen garapenean, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

Hautaprobetako ikasleak

Ikasturtea	Guztira	Euskaraz	Euskaraz (%)
1995/1996	17.209	4.681	%27,20
1996/1997	16.598	4.785	%28,83
1997/1998	15.715	4.842	%30,81
1998/1999	15.657	5.108	%32,62
1999/2000	13.539	4.797	%35,43
2000/2001	12.235	4.650	%38,01
2001/2002	11.234	5.070	%45,13
2002/2003	10.500	4.868	%46,36
2003/2004	10.365	4.951	%47,77
2004/2005	9.772	4.893	%50,07
2005/2006	9.359	4.717	%50,40
2006/2007	9.313	4.826	%51,82
2007/2008	8.976	4.888	%54,46
2008/2009	8.635	4.744	%54,94
2009/2010	9.057	5.208	%57,50
2010/2011	9.335	5.674	%60,78
2011/2012	8.243	5.117	%62,08
2012/2013	8.173	5.122	%62,67
2013/2014	8.578	5.512	%64,26

Hautaprobak euskaraz egindako ikasleak horiek izanda ere, beste lurralde batzuetatik dato-
zelako edo probak euskaraz egin arren ikasketak, arrazoi ezberdinak direla kausa, gaztelaniaz
egin nahi dituzten ikasleak daudelako, honako hau da azken urteotan UPV/EHUUn beren ikaske-
tak euskaraz egin nahi dituzten ikasleen bilakaera:

Euskaraz matrikulaturiko ikasle berriak (%)



Orain arte aipatu ditugun hiru iturriak grafiko berean batuko bagenitu, argi ikusiko genuke hiru kurben arteko paralelotasuna: euskarak gorantz egin du Batxilergoan eta Hautaprobetan, eta UPV/EHUUn sartzan diren ikasle berrien kopuruak ere joera horri eusten dio, galera txiki bat gertatu arren.


**Batxilergoa (D eredua), Hautaprobak euskaraz eta
UPV/EHUko euskara taldeetako ikasle berriak**

Ikasturteak	Batxilergoa	Hautaprobak	Ikasle berriak
1997/98	%34,11	%30,81	%23,46
1998/99	%33,53	%32,62	%26,24
1999/00	%36,45	%35,43	%27,25
2000/01	%40,09	%38,01	%30,53
2001/02	%40,70	%45,13	%36,14
2002/03	%41,87	%46,36	%35,73
2003/04	%42,59	%47,77	%37,82
2004/05	%44,35	%50,07	%39,60
2005/06	%45,93	%50,40	%42,35
2006/07	%46,55	%51,82	%42,52
2007/08	%48,7	%54,40	%45,37
2008/09	%51,7	%54,94	%46,10
2009/10	%52,7	%57,50	%45,79
2010/11	%53,8	%60,78	%42,81
2011/12	%54,0	%62,08	%46,94
2012/13	%56,9	%62,67	%48,07

Datuok ikusita, etengabea da UPV/EHUn euskaraz matrikulatzen diren ikasleen igoera. Batez beste urtero ehuneko bat baino gehiagoko igoera izan da azken urteotan, eta, alde horretatik, plan honen iraupenaren bitartean UPV/EHUn matrikulatzen diren ikasleen erdiak baino gehiagok ikasketak euskaraz egitea espero da.

2010/11 ikasturtean, euskaraz ikasi zuten ikasleen jaitsiera bat izan zen, puntuala eta ikasturte horretakoa bakarrik. Honen azalpena nahiko garbia da: ikasturte horretan, gradu titulazioak ezarri ziren urtean, Lanbide Heziketatik zeukaten notarekin etorri ziren ikasle asko, eta horrek, jakina, eragina izan zuen unibertsitateko ikasle multzoan. Hurrengo ikasturtetik aurrera, Lanbide Heziketatik datozen ikasleei Hautaprobak eskatu zaizkienez, aurreko urteetako egoerara itzuli gara, %45,79tik %46,94ra pasatuz bi urtean.

Edozein modutan, Hautaprobak euskaraz egiten dituztenen eta euskaraz matrikulatzen direnen artean bada aldea (hamar bat puntu), taula honetan ikus daitezkeen bezala:



Faktore asko egon daitezke alde honen atzean: beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleen portzentajeak, 25 urtetik gorako ikasleak edo beste titulazio bat dutenak, Hautaprobak euskaraz egindako batzuek beste herrialdeetara joan behar izatea... eta, orobat, euskara-planetan aurreikusitakoak helburuak, ezarpenak, bete ez izana eta gradu batzuk euskaraz osorik ezin eskaini izana orain arte.

2013-2014 ikasturteko datuak aztertuta, D ereduan ikasi eta ondoren gure unibertsitatean matrikulatu diren ikasleen %91,4k egiten ditu bere ikasketak euskal lerroan. Alde horretatik, garbi dago jarraipen bat dagoela Batxilergoan eginiko hizkuntza-aukeraren eta unibertsitatean egiten denaren artean. Bestalde, Hautaprobak gure unibertsitatean egin eta ondoren UPV/EHU matrikulatu diren 5.184 ikasleren datuak ikusita, zera ondoriozta dezakegu: alde batetik, ikasle horietatik 2.267 gaztelaniaz egiteko matrikulatu dira (hautetako 660k egin zuten hautaproba euskaraz), eta

beste 2.917 euskaraz matrikulatu dira (hauetako 101ek egin zituzten Hautaprobak gaztelaniaz). Hautaprobak euskaraz egin eta gaztelaniaz matrikulatu diren ikasleak ia karrera guztietan daude, oso kopuru txikitara, honako hauetan izan ezik: Itzulpengintzan (%67), Filologian (%67), Historian (%55), Marketinean (%50), Zuzenbidean (%45) eta Kazetaritzan (%45). Ikus daitekeen bezala, zenbait gradu ez dira ez euskaraz ez gaztelaniaz eskaintzen, eta alde horretatik, ikasle horiek «erdal» eremuan matrikulatzen dira. Horiek kenduta, beste lau gradutan gertatzen da hizkuntza aldaketa; Kazetaritzan eta Zuzenbidean lanerako hizkuntza-tresna moduan gaztelania menperatu beharra da goelako, eta Historia eta Marketin graduetan, aldiz, aztertu beharko dugu zergatik gertatzen den; arrazoietako bat, azken titulazio horretan, irakasgai guztiak euskaraz ez eskaintzea izan daiteke.

Alde horretatik, lanean jarraitu behar dugu gure unibertsitatera datorren ikasleari aukera eskaini ahal izateko bere gradu ikasketak nahi duen UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetako batean egin ditzan.

2.2. Irakasleak

UPV/EHUko Estatutu-**91. artikulua**ren 4. puntuak honako hau dio: «UPV/EHUk euskararen erabilera bultzatuko du ikerlanetan eta zabalkunde zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoan.» Betebehar hori aurrera eramateko, guztiz beharrezkoa da irakasle elebidun kualifikatuak izatea, eta, helburu hori lortzearren, Unibertsitateak politika bat du markaturik irakasle elebidunak ugaritzeko, elebidun izanik aurretik aipaturiko betebehar horiek euskaraz eta gaztelaniaz egin ditzaketelako. Unibertsitateak irakasle elebidunak lehenesteko politika horrekin jarraitu beharko du, beraz.

Bestalde, ikusita irakasle berriek dituzten zailtasunak eta euskarazko ikerketa ere bultzatu behar dugula, jarraitu behar dugu laguntzak bideratzen tesiak eta ikerketa dibulgazioa euskaraz egiteko, bai eta irakasle doktore euskaldunen portzentajea altuagoa izan dadin.

Ikertzaileei dagokienez, berriz, nazioarteko ikertzaileak kontratatzea bilatzen dugula kon-tuan izanik, erraztasunak eta bideak eskaini beharko zaizkie euskaldundu daitezten.

Alde horretatik begiratuta, aurreko urteetako ildotik jarraitu beharko dugu. Irakasle doktore elebidunen kopurua handitzen, eta esfortzu berezia egiten behar berezia duten jakintza-arloetan.

Izan ere, 2006an lanpostuen zerrendako arduraldi osoko irakasleen % 35,51 zen elebidun; gaur egun, aldiz, kopuru hori % 47ra igo da.

Arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileak (I mota), arlo zientifikoaren eta hizkuntzaren arabera (2006-2013)

Arlo zientifikoa	Guztira	Elebidunak	Elebidunak (%)
	2006/2013	2006/2013	2006/2013
Zientzia Esperimentalak	462 / 506	145 / 212	31,39 / 41,89
Ikasketa Teknikoak	795 / 865	225 / 385	28,30 / 44,50
Osasun Zientziak	221 / 295	52 / 113	23,53 / 38,30
Gizarte eta Lege Zientziak	1.037 / 1.118	461 / 632	44,46 / 56,52
Giza Zientziak	430 / 444	157 / 201	36,51 / 45,27
Guztira	2.945 / 3.228	1.040 / 1.542	35,31 / 47,76

Aurrerapenak egin diren arren, oraindik ere desoreka linguistiko horrek baldintzatu egiten du euskararen erabilera eta euskarazko irakaseskaintza zabaltzeko egitasmoa. Baina, horrez gainera, arazoak sortzen dira irakasle elebidun gutxi dituzten sailetan, eta kaltetuak irakasle elebidun horiek izaten dira: zailtasunak epe laburrean bajak ordezkatzeko, edo atzerriko zentroetan egonaldiak egiteko; denbora gutxiago doktore-tesiak edo ikerketak egiteko; graduiko ikasketen eskolak eman beharra eta, ondorioz, graduondoko irakaskuntzarik ezin emana, irakasgai desberdinak eman beharra...

Irakasle doktoreei dagokienez, 2006an plantillako dedikazio osoko irakasleen artean 662 irakasle doktore elebidun zeuden (% 28), 1.697 erdaldunen parean (% 72). 2013an, aldiz, egoera pittin bat orekatu da, eta irakasle doktore elebidunak 934 dira (% 40), 1393 irakasle erdaldunen parean (% 60).

Bestalde, irakasle elebidunen artean % 56 zen doktore 2006an (erdaldunen artean portzentaje hori % 69 zen bitartean), eta zazpi urte geroago irakasle elebidunen artean % 75ek dauka tesia irakurrita. Jakinda, legediak hala ezarririk, Unibertsitateko irakasle guztiek doktore izan beharko dutela (desagertzeaz dauden figuretako irakasleak eta laguntzaileak izan ezik), neurriak

hartu beharko dira, Irakasleen eta Ikertzaileen arloko errektoreordetzarekin, tesi irakurketak bultzatzeko gaur egun ditugun irakasleen artean.

2.3. Irakaseskaintza

Irakasleen ahalmenarekin oso loturik dago Unibertsitatearen irakaseskaintza; zein hizkuntza, hautazkoak, graduondoetako eskaintza... Arestian aipatu dugu Europako Unibertsitate Ere-muaren arabera tituluen moldaketa-prozesuaren amaieran gaudela eta 2013/14 ikasturtean ezarriko direla graduak osorik. Moldaketa honetan, aldaketa nabarmenak izan dira: diploma-turak lau urteko karrerak izatera pasatu dira, lizentziatura batzuk gradu bihurtzean beharturik daude graduondo eskaintza egitera... eta, besteak beste, UPV/EHUko eskaintza, eman beharreko kredituen aldaketa ekarri du moldaketa honek.

Baina kontuan izaten badugu zein den ikasketa-planetan eskaintzen diren kredituen kopuru osoa (taldeen neurriak, kopurua, errepikapenak, irakaskuntza mota eta abar kontuan izan gabe), eta hizkuntza aztergai duten titulazioak, hizkuntza atxikirik ez duten irakasgaiak (practi-cuma, esaterako) edo errepikatuta dauden titulazioak alde batera utzita, ikusiko dugu gaur egun 22.324 kreditu eskaintzen ditugula ikasketa-plan guztien artean. Horietarik 19.928,5 gaz-telaniaz ematen dira (% 89,27); euskaraz, 18.061,0 (% 80,90) eta beste hizkuntza batzuetan, 1.601 (% 7,17). Hau da, euskarazko gehienezko eskaintzaren % 82tik gora gaude une honetan; izan ere, hainbat irakasgai hizkuntza ez-ofizial batean ematen direnez gero, euskarazko (eta gaztela-niazko) eskaintzaren gehienezkoa ezin da % 100 izan.

Irakasgai guztiak, kredituak

Gaztelania	19.928,5	%89,27
Euskara	18.061,0	%80,90
Bestelakoak	1.601,0	%7,17
Ikasketa-planetan kredituak GUZTIRA	22.324,0	

Kreditu horiek honela geratzen dira banaturik irakasgai motaren arabera.

Kredituak irakasgai motaren arabera

	Adarreko oinarritzkoak		Beste adar. oinarritzkoak		Derrigorrezkoak		Hautazkoak		
Gaztelaniaz	4.586	%97,68	619,5	%97,18	10.145,5	%95,95	4.578	%71,32	19.929
Euskaraz	4.518	%96,23	607,5	%95,29	9.312,5	%88,07	3.623	%56,45	18.061
Beste hizkuntzak	540	%11,50	96,0	%15,06	803,0	%7,59	162	%2,52	1.601
Ikasketa planetako kredituak GUZTIRA	4.695		637,5		10.573,5		6.418		22.324

Taulan ikus daitekeen bezala, kredituen eskaintzan dagoen desorekarik handiena hautazkoetan gertatzen da, eta euskarazko oinarritzko eta derrigorrezkoen eskaintzan % 90etik gora gaude.

Desoreka handiena, edozein modutan, graduondoko eskaintzan gertatzen da, zeren arlo honetan euskaraz eskaintzen diren kredituak guztiaren %10en inguruan baitaude. Datozen hila-beteetan, graduondoko Plan Estrategikoa garatu behar da unibertsitatean, eta plan horren baitan esfortzu berezia egin beharko da, graduondo profesionalizatzaileez gainera, euskarazko eskaintza sendotzeko eta handitzeko; izan ere, graduondo profesionalizatzaile hauek graduak duten tratamendu bera izango dute; hots, hizkuntza ofizial bietan eskaini beharko dira.

2.4. **Administrazioa eta zerbitzuetako langileak**

Unibertsitateak gizarteari eman beharreko zerbitzuan, oinarritzkoa da administrazio eta zerbitzuetako langileen lana. Irakaskuntzak eta ikerkuntzak aurrera egiteko, irakasle-ikertzaileekin batera administrazio eta zerbitzuetako langileak daude; alde horretatik, unibertsitate elebiduna izateko, langile hauek ere bi hizkuntzetan aritzeko gai izan behar dira.

UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek Eusko Jaurlaritzak, 86/1997 dekretuaren arabera, ezarritako derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna bete beharko dute. Beraz, 2013ko otsailaren 4an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak «*Erakundeak derrigor bete beharreko indizea. V. Plangintzaldia (2013-17)*» dokumentuan adierazitakoaren ara-

bera, indize horrek % 48,46 izan behar du. Hots, UPV/EHUko lanpostu guztien artean ezarritako derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak ehuneko hori edo hortik gorakoa izan behar duela.

Kontuan izanik indize hori 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikan euskararen ezagutza mailari buruz jasotako datuetatik atera dela, eta datu horiek, ikusi ahal izan den bezala, urtez urte biztanleria elebidunaren portzentajea handitzen ari dela erakusten dutela, logikoa litzateke indize horretatik gora jotzea, are gehiago kontuan izanik hemen aurkezten den plana 2017. urtean amaituko dela; hots, datu horiek jaso eta handik hamaika urtera.

Azken urteotan, 2006ko eta 2013ko egoera islatzen duten ondorengo taula hauetan ikus daitezkeen bezala, aurrera egin du bai lanpostuen derrigortasun kopuruetan bai hizkuntza-eskakizuna lortu duten langileen aldetik.

Administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrendako hizkuntza-eskakizunak, titulazio taldearen arabera (2008/2013)

Titulazio taldea	1.HE		2.HE		3.HE		4.HE	
	Guztira	Derrig	Guztira	Derrig	Guztira	Derrig	Guztira	Derrig
Doktoregoa, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura	0	0	0/1	0	155/305	53/128	10/11	8/10
Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa	0	0	25/22	7/6	113/107	35/41	0	0
Goi-mailako Batxilergoa, Lanbide Heziketa II	1/11	0	262/541	108/247	14/12	7/7	0	0
Eskola-graduatuak, Lanbide Heziketa I	9/10	0/2	501/306	232/145	0	0	0	0
Eskola-ziurtagiria	138/130	64/127	92/93	40/93	0	0	0	0
GUZTIRA 1.320 / 1.549	148/151		880/963		282/424		10/11	
Derrigortasun-data daukatenak GUZTIRA 554 / 806	64/129		387/491		95/176		8/10	
Guztira (ehunekotan) %100	%11,21 %9,75		%66,66 %62,17		%21,36 %27,37		%0,75 %0,71	
Derrigortasun-datak (ehunekotan) %41,94 / %52,03	%4,84/ %8,33		%29,31/ %31,70		%7,19/ %11,36		%0,60/ %0,65	


Administrazio eta zerbitzuetako langileek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak (2008/2013)

Titulazio taldea	Hizkuntza-eskakizuna					Guztira (taldeka)
	HE gabe	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE	
Doktoregoa, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura	92/96	14/22	23/55	59/198	16/30	204/401
Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa	68/36	11/5	24/33	48/69	2/4	153/147
Goi-mailako Batxilergoa edo Lanbide Heziketa II	134/186	12/35	34/278	26/134	1/3	207/636
Eskola-graduatuak, Lanbide Heziketa I	347/139	66/57	269/152	97/73	5/2	784/423
Eskola-ziurtagiria	150/74	29/35	96/98	27/33	1/1	303/241
GUZTIRA	791/531	132/154	446/616	257/507	25/40	1.651/1.848

Datuok ikusita, azken urteotan izandako garapen nabarmena ikus daiteke; horrez gainera, zera esan dezakegu oraingo egoerari dagokionez, langileen %28,73 hizkuntza eskakizunik gabe daudela, eta 2. eta 3. eskakizunak direla nagusienak kopururari dagokionez (%33,33 lehen kasuan eta %27,44 bigarrenean). Bestalde, oraingo egoeraren arabera, honako emaitza hauek ditugu hizkuntza-egoera egiaztatuta duten langileei buruz titulazio taldeen arabera:

1. Doktoregoa, Lizentzi., Ingeni., Arkitek. 401 pertsonatik 96k ez. (%76,05 gaindituta eskakizunen bat)
2. Diplomatura, Ingeni. Teknikoa, 147 pertsonatik 36k ez (% 75,51 gaindituta)
3. Goi-mailako batxiler. Edo L.H. II, 636 pertsonatik 186k ez (% 70,75 gaindituta)
4. Eskola graduatuak, LH I 423 pertsonatik 139k ez (% 67,13 gaindituta)
5. Eskola-ziurtagiria, 241 pertsonatik 71k ez (% 70,53 gaindituta).


Hizkuntza-eskakizuna egiaztatutako en portzentajeak



Honek, jakina, hizkuntza-eskakizunen bat gainditu dutela adierazten du, ez lanpostuari legokiokeena: izan ere, gaur egun honako hauek dira titulazio taldeen arabera ezarritako hizkuntza-eskakizunak:

1. Taldea: 317 lanpostutatik 138k dute derrigortasuna (%43,53)
2. taldea: 129 lanpostutatik 47k dute derrigortasuna (%36,43)
3. taldea: 564 lanpostutatik 254k dute derrigortasuna (%45,03)
4. taldea: 316 lanpostutatik 147k dute derrigortasuna, (%46,51)
5. taldea: 223 lanpostutatik 220k dute derrigortasuna (%98,65)

Ezarritako hizkuntza-eskakizunak



Beraz, datuok ikusita, nabarmena da maila guztietan (5.ean izan ezik) hizkuntza-eskakizuna dagoeneko akreditaturik duten langileak ditugula derrigorrezkotasunik ez duten plazetan. Doktoregoa, Lizentzi., Ingeni., Arkitek. taldean, esaterako, 30 langile daude 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta, eta 198, 3. eskakizuna egiaztatuta; hots, langile guztien % 50 eta, aldiz, plazen % 43,67n bakarrik dago derrigortasuna jarrita.

Bestalde, argi dago hizkuntzaren ezagutza-mailan desoreka bat dagoela titulazio taldeen eta derrigortasun-data dutenen kopuruaren artean, eta betetze-maila askoz handiagoa da behe-mailetan goikoetan baino. Horrek, berez, duen azalpen logikoaz gain badu beste irakurketa bat; izan ere, aurreko plangintzan jendeaurreko postuetan indar handiagoa egin zen bestelakoetan baino: 86/1997 dekretuak 20. atalean ezarritako irizpideei jarraituz, «*Beti ere, derrigortasun-data behar duten lanpostuak zehazteko orduan, honako irizpide hauek hartuko dira aintzakotzat:*

- a) *Lehenengo, lanpostuari dagokion jarduera betetzerakoan jendearekin izaten den harremana. Aztertu egingo da, beraz, lanpostu bakoitzetik eskainitako zerbitzua norentzat den eta harremanak nolakoak eta zenbaterainokoak diren.*
- b) *Bigarren, administrazioaren barruan lanpostuaren harreman-sarea (harremanak norekin, nolakoak eta zenbaterokoak).*
- c) *Hirugarren, lanpostuari dagokion zerbitzua edo atala zein motatakoa den eta zein ezaugarri dituen.»*

Egia da, bestalde, dekretu horrek berak adierazten duela 22. atalean hizkuntza-eskakizunak modu zuzen eta proportzionalen ezarri behar direla: «*Derrigorrezko hizkuntz eskakizunak ezartzeko irizpideek administrazio bakoitzean dauden lanpostuetan modu zuzen eta proportzionalen ezartzea izango dute helburu, bereizitasunik egin gabe kidego, eskala, maila edo titulazio-taldearen arabera*». Alde horretatik, plan honetan lanpostuen arteko proportzionaltasun hori bilatuko dugu, baina baita 20. atalean ezarritako irizpideak kontuan izan ere. Unibertsitatea zerbitzu publikoa da, eta euskal gizarteari erantzuteko modurik egokiena bilatu behar dugu. Beraz, jendaurreko postuetan esfortzu berezia egin beharko dugu gure zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eskaini ahal izateko.

Izan ere, Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileen hizkuntza-eskaera arautzen duen 86/1997 Dekretuak ezartzen duen bezala, hauek dira ezarritako helburuak edo betebeharrak:

- a) *Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %0tik %25era bitartekoa denean: Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio- ataletarako.*
- b) *Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean: Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.*

- c) *Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea % 45etik % 70era bitartekoa denean: Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.*

Gure kasuan, hirugarren indize kopuruan gaudenez, c) atalean ezarritakoak bete beharko ditugu.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeak, edozein modutan, ez du nahitaez hizkuntzaren erabilera ziurtatzen; askotariko arrazoiak direla kausa, azken urteotako azterketa guztietan erakusten zaigu hizkuntzaren jabetza eta erabilera ez datozela bat. Egoera diglosiko honetan, neurriak hartu beharko dira euskaraz aritu nahi duenak eragozpenik izan ez dezan, betiere hiztunek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea errespetatuz.

2.5. **Euskarazko materialak**

UPV/EHU da une honetan euskaraz unibertsitate-mailako ikasliburu eta argitalpen gehien egiten duen instituzioa. Euskararen egoera normalizatzeko bidean, eta aurrera egiteko, guztiz beharrezkoa den lana egiten du Unibertsitateak. Baina, lan hori gizartearentzat bere osotasunean garrantzitsua izanda ere, guztiz beharrezkoa dugu irakaskuntzan, ikerkuntzan eta gizarte-hedakuntzan; hots, unibertsitateko eguneroko lanetarako.

UPV/EHUK ahalegin handia egin du azken urteotan eskuliburuak eta bestelako ikasmaterialak euskaraz argitara emateko, eta ahalegin horretan kanpoko instituzioekin harremanak izan baditugu ere (Elhuyar, UEU, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Legebiltzarra,...), batez ere gure unibertsitateko irakasle, ikertzaile eta administrazio eta zerbitzuetako langileei esker egin ahal izan dugu hori. Eta, zalantzarik gabe, esan dezakegu gaur egun merkatuan dagoen unibertsitate-mailako euskarazko ikasmaterialen corpus zati handi bat UPV/EHUK plazartua dela.

Azken urteotan UPV/EHU argitaratu denaren ia erdia euskaraz eman da argitara, direla itzulitako ikasliburuak, direla euskaraz idatzitako lanak.

Argitalpenen bilakaera hizkuntzaren arabera (%etan)

Urtea	Liburuak		
	Gaztelaniaz	Euskaraz	Beste hizkuntza batzuetan
1997	56,83	41,88	1,28
1998	61,07	38,62	0,29
1999	55,16	44,51	0,32
2000	56,38	39,56	4,04
2001	66,85	33,15	0,00
2002	58,76	40,44	0,80
2003	53,76	45,15	1,07
2004	55,01	44,05	0,93
2005	55,93	43,34	0,73
2006	58,41	41,35	0,24
2007	72,25	21,29	6,46
2008	70,77	26,92	2,31
2009	56,70	41,65	1,65
2010	58,01	40,36	1,63
2011	53,55	42,98	3,47
2012	55,09	42,99	1,92

Euskararen egoera normalizatzeko bidean, oinarrizko eskuliburuaren itzulpenak egin dira, jatorrizko lanak argitaratu, bai eta doktore-tesiak eta, batez ere, irakasleek sorturiko ikasmaterialak ere. Izan ere, ikasmaterial horiek zuzenki loturik daude gaur egungo irakaskuntza eskaintzara, eta behar-beharrezkoak ditugu kalitatezko irakaskuntzarako; materialok argitaratu aurretik, Euskara Zerbitzuaren hizkuntza-orrasketa egiten zaie hizkuntza-maila zaintzeko.

Azken urteotan oinarrizko erreferenteak diren liburuen itzulpenekin jarraitu da, baina esfortzu berezia egin da irakasleek sorturiko ikasmaterialen argitalpenean (formatu elektronikoa). Hemen daude, horren erakusgarri, azken urteotan eginiko ekarpenak, atalez atal:

Ikasmaterialak
(Ikasmaterialgintza sustatzeko deialdikoak. Argitalpen digitalak)

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
2	4	6	4	26	17	24	17	38	25	30

Euskarara itzultako ikasliburuak

2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
2	5	4	2	6	5	2	9	8	9	17	11	10	6

Euskaraz sortutako liburuak

2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
9	6	4	8	4	9	6	4	8	6	4	6	12

ZIO Bilduma

2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
2	0	1	2	1	1	3	2	2	2	1

Legeak-Leyes Bilduma

2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
3	2	1	3	2	1	2	1

Limes Bilduma

2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
2	2	1	3	2	2	2	3	2	1

Euskal Literatura Saila

2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
2	2	2	1	3	2	2

Beharrak baina ez daude ase, eta premia handia dago oraindik hainbat arlotan. Are gehiago, gure irakasleek sorturiko materialez gain, nazioarte-mailako hainbat eta hainbat lan euskaraz ere argitaraturik egon beharko lirateke. Europako Unibertsitate Eremura egokituriko irakaskuntzaren ondorioz, behar berriak ere sortu dira; materialak moldatu beharko dira, gaurkotu, egokitu eskakizun pedagogiko berrietara... Eta hori guztia jaso beharko dugu plan berrian.

2.6. **Aurreko Planaren helburuak**

Datuok ikusita, argi geratzen da aurreko planaren helburu nagusiak bete egin direla. *UPV/EHUko Euskararen Plana Gidaria (2007/08-2011/12)-ren jarraipen ebaluazioa* dokumentuan ikusi zen bezala, Plan horretan ezarritako helburu gehienak bete ziren, eta gabeziak eta behar berriak ikusita, Planaren luzapena egin zen 2013rako. Luzapen horretan, honako helburu hauek markatu ziren.

Administrazio eta Zerbitzuetako langileen atalean

1.1. Lekualdatze-lehiaketaren prozesuaren ondorioz, eta sor litezkeen lanpostu berriak direla eta, lanpostuen % 58k derrigortasun-data gainditua izatea 2013ko abendurako.

Helburu hau ez da bete, lekualdatze-prozesua amaitzean egingo da.

1.2. Atezain nagusiei eta menpekoei dagokienez, eta beharrak aztertu ondoren, liberazioak eskaini, nahiz eta ordu-kreditua agortua izan.

Egoera horretan dauden langile guztiei eskaini zaie aukera hau.

1.3. Lanpostuen zerrendan agertzen ez diren aldi baterako premiak betetzera-koan, eta jendaurreko postuak direnean, hizkuntza-eskakizuna eskatu.

Horrela egin da.

1.4. *Euskara erabiltzea unibertsitate barruko nahiz kanpoko komunikazioan atalean proposaturiko bidea bultzatzea.*

Bide horretan ezarritako asmo eta helburuak betez joan gara.

1.5. AZPkoen hizkuntza-prestakuntza. Liberazioak eskaintzea.

Liberazioak eskaini dira.

1.6. IVAP-HAEErekin eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetzarekin (HPS) elkarlanean aritzea.

IVAP-HAEErekin lanean jarraitu dugu (Batzorde mistoa sortu ez bada ere), eta HPSrekin koordinatu eta bildu gara.

Euskarazko Irakaseskaintzari dagokionez, honako helburu hauek ezarri ziren:

3.1. Graduetan kredituen % 79,5 euskaraz eskaintzea.

2013ko udazkenean, kredituen % 80,9 eskaintzen dira euskaraz.

3.2. Enborrezko eta nahitaezko kreditu guztiak euskaraz eskaintzea iraungitzeaz diren titulazioetan, baldin eta eskaera nahikoa bada.

Horrela egin da.

3.3. Graduak tituluak euskaraz eskaintzea, baldin eta eskaera nahikoa bada.

Proposaturiko 82 titulazioetatik 3tan helburuen % 25 bete da (horietatik bitan eskaera nahikorik izan ez delako), beste bitan helburuen % 75 bete da, batean % 85; beste 14 gradutan, % 90etik gora, eta 66 titulaziotan, helburuen % 100 bete da.

Betetze-maila txikia izan den titulazioetan, informeak eskatu dira zentro eta sailetan Euskararen arloko Errektoreordetzarekin hurrengo ikasturteetan egoera bideratzeko.

3.4. Euskararen presentzia nabaria bermatzea etorkizuneko graduondoko ikasketetan. 2013ko amaieran, 540 kreditu eskaini euskaraz graduondoetan.

Une honetan, masterretan 507 kreditu eskaintzen dira, eta 259 berezko tituluetan; hots, 766 kreditu.

3.5. Master amaierako lanen inguruan azterketa egitea zen helburua, eta azterketa hori gauzaten ari da.

3.6. Graduondokoetan eskaera nahiko izanez gero bi talde sortzea, eta aukera izan denean hala egin da.

Irakasle-ikertzaileei dagokienez, lehen helburua plantillako irakasleen % 47 elebidun izatea lortzea zen. Une honetan, helburua lortu da.

4.2. Lanpostu elebidun eta elebakarren arteko desoreka dela eta, desoreka hori gutxitzen jarraitu da kontratazioen bidez.

4.3. Irakasle elebidunen artean, helburutzat % 64 doktore izatea jarrita zegoen, eta une honetan irakasle elebidunen % 75 da doktore.

Bestalde, jarraitu da doktore titulua lortzeko lizentzien politikarekin, eta irakasle-ikertzaileek euskara ikasteko laguntzekin; ez da egin, ordea, GAITZE programaren deialdi berririk.

Euskarazko ikasmaterialgintzaren arloan (plan honetatik aurrera, *testugintza* deituko diogu arlo orokor honi, eta *ikasmaterialgintza* terminoa deitura hori duen deialdiari dagozkion aipamenetarako utziko dugu), 2013. urtean 9 ikasliburu euskaratu eta *ZIO*, *Limes* eta *Legeak-Leyes* bildumetan bina liburu argitaratzea aurreikusten zen. Helburuak, oro har, bete dira, ikasliburuetan (6 argitaratu dira, aurreikusitako liburu batzuen itzulpena atzeratu delako), *ZIO* bilduman eta *Limes* izan ezik (azken bietan, liburu bakarra argitaratuko da).

Ikasmaterialak sortzeari dagokionez, ikasmaterialgintza sustatzeko deialdia egin da, eta Euskaraz Sortutako Unibertsitate Liburuak argitaratzeko deialdi bat ere bai. Gauza bera esan dezakegu *EHUskaratuak* itzulpenen corpusari buruz eta prestatze-bidean den GAIKA glosarioak kontsultatzeko aplikazioari buruz ere.

Hobekuntza-prestakuntzari dagokionez, ezarritako asmo guztiak bete dira (hobekuntza-ikastaroak, prestakuntza tailerrak TSE proiektuarekin eta EHULKU zerbitzua).

Ikerketa eta zabalkundea atalean, berriz, honako helburu hauek ezarri ziren:

7.1. Zientzia eta dibulgazio jardunaldiak (Durangoko azokan parte hartu eta ZIO bildumaren inguruan jardunaldi bat). Proposaturiko bi ekitaldietatik lehena burutu da.

7.2. *Irrika* aldizkariaren inguruan ebaluazio bat egitea. Ebaluazioa urte hasieran egin zen, eta horren ondorioz aldizkaria argitaratzeari utzi zaio.

7.3. Euskarazko tesiak sustatzea. Helburua zen 2013an 28 tesi irakurtzea euskaraz. Une honetan ez dugu datua, urtea ez delako amaitu, baina lehen 6 hilabeteetan 24 izan dira; beraz, ezarritako helburua beteko dela aurreikusten da.

7.4. Euskarazko aldizkari zientifikoei eta goi-dibulgaziokoei lagundu zaie, ahal izan den neurrian.

7.5. Euskarazko tesien ingelesezko laburpenean laguntzeko eskaerarik ez da izan; beraz, oraingoz ez da horrelakorik egin.

7.6. Euskaraz egin eta defendaturiko tesirik onenaren Koldo Mitxelena saria deialdia egin zen, Euskaltzaindiarekin dugun hitzarmenaren barruan.

7.7. Urtekari bat egitea euskaraz burutu eta zabaldu den ikerketaren berri emanez. Helburu hau ez da gauzatu.

Euskararen erabilera dela eta, honako helburu hauek ezarri ziren aurreko planean:

8.1. Elebitasuna bermatzea web orrian eta aplikazio informatikoetan. Web orri berria diseinatzen ari da helburu horrekin.

8.2. Euskal Hiztunentzako bulegoa ezagutarazi eta zerbitzuaren jarraipena egin. Ez da kanpaina propiorik egin, baina leku ikusgarriagoan ezarri zen web orrian, eta zerbitzuaren jarraipena egin da.

8.3. Hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea kanpoko enpresek eta erakundeek eskainitako zerbitzuetan. Horrela eskatu da kontratu guztietan, eta betearazi da horrela izan ez denean.

8.4. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileen bereizgarri bat egin eta zabaldu. Mahaigaineko bat zabaldu zen hori adieraziz.

8.5. Bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko jarraibideak eta beste proiektu batzuk aurrera eramán dira.

Euskararen azpiegiturari dagokionez, ezin izan dira aurreikusten ziren bi kontratuak egin.

Beste unibertsitateekin, aldiz, jarraitu dugu elkarlanean, eztabaida-lehiaketaren bidez, gure argitalpenen berri emanez, koedizioak eginez...

3.

Helburuak

Aurrerago aipatu dugu Plan honek aurrera jarraitzeko balio behar duela, unibertsitateko sektore eta arlo guztietan modu inportante batean aurrera egiteko euskararen erabileran. Euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanean aurrera jarraitzeko, herritar guztiak, unibertsitateko kide guztiok eroso senti gaitzen hizkuntza batean edo bestean. Jakina, helburu hori lortzeko bidean gaude, eta horretarako, bestelako helburu nagusi batzuk, eta zehatzak, adieraziko ditugu ondoren, betiere norabide horretara bideratuak.

Helburu nagusiak

1. Euskal Herriko Unibertsitatean kide guztien aukera-berdintasuna bermatzea hautatu duten erkidegoko hizkuntza ofiziala bata zein bestea izanda, administrazio publiko guztiek bezala, guk ere «*Herritarrek administrazioekin dituzten harreman ahozkoetan eta idatzizkoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea*» helburu izan behar dugu, HPSk adierazi bezala.
2. Euskara unibertsitatearen kideen hizkuntza jaso izatea eta euskararen normalkuntzarako unibertsitateak ekarpenak egitea bere beregizko esparruan, titulazioetan, irakas-kuntzan eta ikerkuntzan.

3. Unibertsitario euskaldunen erkidegoa sendotzea eta trinkotzea. Eta horretarako, neurriak jartzea euskararen egungo egoera sendotu eta hobetzeko irakaseskaintzan, irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen plantilletan, ikerketaren zabalkundean, eta, era berean, eguneroko erabilera ikasleen parte hartzea sustatuz.
4. UPV/EHU euskararen garapenean eta normalizazioan erakunde aintzindaria izaten jarraitzea, terminologiagintzan, argitalpenetan, zientziaren eta jakintzaren dibulgazioan erreferente izatea.
Aitzindaritza horretan, eta euskararen normalizazioaren atalean ikerketarena propio duenez UPV/EHUK, euskaraz eraikitako ikerketa sustatzearen eta indartzearen konpromisoa hartzea eta horretarako gero eta gune gehiago egon dadin ikerketa politika propioa garatzea.

Helburu espezifikoak

1. Administrazio eta zerbitzuetako langileak.
 - 1.1. Jendaurreko lanpostuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta dituzten langileak daudela ziurtatzea herritarren hitzkuntza-aukera bermatzeko, eta, horrela ez bada, jarraipena egin hori lortzeko.
 - 1.2. Erabilera-plana garatzea.
 - 1.3. HAEErekin elkarlanean aritzea, hizkuntza-prestakuntzarako politika koordinatzeko eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko.
 - 1.4. Lanpostuen Zerrendaren %65-70 lanpostu derrigortasun-data izan dezaten «Jar-duera eremuak» atalean ezarritako neurriak erabiliko dira.
 - 1.5. Plangintzaldian zehar titulazio talde bakoitzean izan behar diren derrigortasun-datak gutxienez talde horretako lanpostuen %55 izan beharko du.
 - 1.6. Planaren amaieran A eta 1 taldeetako lanpostuen %10ak 4. hizkuntza-eskakizuna ezarrita izan beharko du, nahiz eta ez guztiek derrigortasun data gainditua izan.

- 1.7. Planaren amaieran C, C/D eta 3. Titulazio taldeko lanpostuen % 30ak 3. hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data izango du esleituta
 - 1.8. Lanpostuen Zerrendatik kanpo diren aldi baterako kontratuetan dagozkien titulazio taldearen derrigortasun-dataren ehuneko bera izango da gutxienez.
 - 1.9. AZPkoen hizkuntza-prestakuntza: urteko liberazioak (5 ordukoak, 2 ordukoak eta 3. HE lortzeari begirakoak zein barnetegiak) dauden beharrizanei erantzuteko eskaintza nahiko eta zabala izango da.
 - 1.10. Euskararen erabilpena indartzeko, trebakuntza ikastaroak eskaini.
2. Euskarazko irakaseskaintza.
 - 2.1. Enborreko eta nahitaezko kreditu guztiak euskaraz eskaintzea egungo graduetan eta graduondoko profesionalizatzaileetan, baldin eta eskaera nahikoa bada, eta gradu eta graduondokoen amaierako lana euskaraz egin ahal izatea bermatzea.
 - 2.2. Euskarazko eskaintza graduondokoetara ere zabaltzen hastea, bai hizkuntza nagusia euskara izango duten graduondoko berriak sortuz, bai egun jadanik eskaintzen diren graduondokoetan irakasgai batzuk euskaraz ere eskainiz, ahal dela enborrezkoak lehenik eta hautazkoak ondoren.
 - 2.3. Irakasmaterialen kalitate linguistikoa bermatzea.
 - 2.4. Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboa bermatzea.
 - 2.5. Esperientzia-geletako ikasketetan euskararen eskaintza handitzea.
 - 2.6. MOOC (*Massive On Line Open Courses*) sarean Unibertsitate irekian euskarazko irakasgaiak eskaintzea.
 3. Irakasle-ikertzaileak.
 - 3.1. Irakasleen eta ikertzaileen plantillako irakasle elebidunen kopurua gutxienez %52ra igotzea.
 - 3.2. Irakasleen eta ikertzaileen arteko desoreka linguistikoa zuzentzea behar den sail guztietan.
 - 3.3. Doktore-titulua daukaten irakasle eta ikertzaile elebidunen kopurua gehitzea.

- 3.4. Jarduera Akademikoaren Planean kontuan izatea UPV/EHUren helburuekin bat etorritik euskaraz eginiko ekarpenak.
 - 3.5. Irakasle-ikertzaileen arteko harreman-sareak dinamizatzea, erregistro akademikoaren eta, bereziki, terminologiaren normalizazioari begira.
 - 3.6. Plaza ez-elebidunen selekzio prozesuetan euskara-mailaren balorazioa handitzea.
4. Testugintza.
 - 4.1. Ikasliburuen itzulpenak sustatzea, batez ere premia handiak dituzten arloetan, baina beste arloak baztertu gabe.
 - 4.2. Unibertsitateko irakasleek ikasmaterialak sor ditzatela bultzatzea, edo sortutakoa berrikusi eta eguneratu, ondoren argitaratzeko.
 - 4.3. Irakasle-ikertzaileek euskaraz ekoiztutako dokumentuak eta horietan erabilitako terminologia erreala kontsultagai jartzea, erregistro akademikoaren normalizazioari laguntzeari begira.
5. Hizkuntza-prestakuntza.
 - 5.1. Hobekuntza-ikastaroak eskaintzea irakasle-ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei.
 - 5.2. Unibertsitateak hizkuntza hobetzeko eskaintzen dituen zerbitzuen berri ematea (*Ehulku*, *AZPidazki*, *EHUskaratuak*, *GAIKA*, *TSOZ...*), ezagunagoak eta erabilagoak izan daitezen.
 - 5.3. «Prestakuntza-tailerrak» eratzea.
6. Ikerketa eta zabalkundea.
 - 6.1. Zientzia-dibulgazioko jardunaldiak euskaraz antolatzea urtero.
 - 6.2. Euskaraz eginiko ikerketaren oihartzuna handitzea.
 - 6.3. Euskarazko tesiak sustatzea eta ikerketaren zabalkuntza bultzatzea.
 - 6.4. Euskal Herriko eta kanpoko erakundeekin elkarlanean aritzea ikerketa eta zientziaren zabalkundea bultzatzeko.

- 6.5. Euskararen arloko Errektoreordetzak bultzatzen dituen aldizkari zientifikoaren indexazioa hobetzea.
 - 6.6. Euskaraz publikatzen diren aldizkariaren errekonozimendua bultzatzea.
 - 6.7. Udako ikastaroetan, zientziaren astearen eta unibertsitatearen antolatzen dituen bestelako jardunaldietan euskararen presentzia gehitzea.
 - 6.8. UPV/EHU euskaraz aritzen diren katedrekin elkarlanean aritzea Plan honetako helburuak betetzearren.
 - 6.9. Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak sustatzea.
7. Euskara erabiltzea unibertsitate barruko zein kanpoko komunikazioan.
 - 7.1. Benetako elebitasuna bermatzea web orri berriaren eta aplikazio informatikoetan.
 - 7.2. «Euskal Hiztunentzako Bulegoa» ezagutaraztea eta hango ekarpenak nahiz kekek aztertzea eta erantzutea.
 - 7.3. Hizkuntza ofizial berraren erabilera bermatzea kanpoko enpresek edo erakundeek eskaintutako zerbitzuetan.
 - 7.4. Hizkuntza-paisaia (errotulazioa, oharrak, eta abar) euskararen erabilera bermatzea UPV/EHU ezarritako irizpideekin bat etorriz.
 - 7.5. Euskararen erabilera sustatzea.
 - 7.6. Plan Gidari berri honen iraupenaldian UPV/EHU prozesu parte-hartzaile bat abiaraztea euskararen erabileraren inguruko hausnarketan eta euskararen erabileraren komunitate osoa inplikatzekeko helburuarekin.
 - 7.7. Euskal Herriko Unibertsitateak bertan euskaraz bizi ahal izateko esparruak zabaldu eta sendotzea bilatuko du, euskararen erabilera-eremu guztietan sustatuz, bai ikasgeletan, bai ikertaldeen eta administrazioko guneetan.
 - 7.8. UPV/EHUko langileek UPV/EHU bertako zerbitzua jasotzen dugunean «lehen hitza» euskaraz izan dadila zerbitzu emailea euskalduna bada.
 8. Euskara Zerbitzuaren egitura indartzea.
 9. Euskal Herriko beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana sustatzea.
 10. Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboak bermatzea eta euskararen erabilera normaltzeko egitasmoetan parte hartze zuzena izatea.

- 10.1. UPV/EHUko ikasleek daukaten euskarari buruzko pertzepzioa eta erabileraren inguruko inkesta burutzea.
- 10.2. Ikasleen inziatibaz sortutako euskarazko ekimenak sustatzea.
- 10.3. UPV/EHUrak kanpotik etorritako pertsonei euskal kulturaren eta hizkuntzaren inguruko harrera ematea.

4.

Jarduera eremuak

4.1. **Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak: hizkuntza-eskakizunak, erabilera-plana eta ikastaroak**

Euskararen ikaskuntza sustatzea

Azken urteotan administrazio eta zerbitzuetako langileen kopurua gorantz joan baldin bada ere, 2013an lanpostuen izoztea izan dugu UPV/EHUn irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileen arloetan. Hori horrela izanda, bi bide daude langile elebidunen kopurua igotzeko: euskara ikasteko liberazioak eta jubilazioen osteko kontratazioak.

Lehen bidearen bidez, lanorduen barruan ikastaroetara joateko dauden bi liberazio-zerrendatan 5 orduko eta 2 orduko liberazioak eman izan dira azken urteotan. Horrez gainera, lanorduetatik kanpo joan izan direnei laguntzak eman zaizkie, bai ekonomikoak, bai ordu horietako batzuk itzuliz, opor edo jai-egunen bidez.

Azken urte hauetan, honako liberazio hauek eman dira euskara ikasteko:

Urtea	5 ordukoak	2 ordukoak	2 ordu Lanorduz at	Autoikaskuntza	3HE deialdi berezia
2007/08	30	188	41	15	—
2008/09	38	169	37	16	69
2009/10	28	148	35	23	83
2010/11	30	107	18	9	76
2011/12	16	95	28	13	55
2012/13	13	63	20	13	24
2013/14	12	73	23	10	26

Unibertsitateak HAEekin elkarlanean jarraituko du eta lanpostuen beharren arabera liberazioak (5 edo 2 ordukoa) eskaintzen, hala eskatzen duten langileei. Liberazioa UPV/EHUko edozein langileri eskaini ahal izango zaio, eta une zehatz batean liberazioa hartzeko arazorik edo eragozpenik egonez gero, Euskararen arloko Errektoreordetzak neurriak adostu beharko ditu langilearen arduradunarekin hurrengo deialdietan liberazioa gauzatu ahal izateko.

Era berean, 2014ko lehen sei hilabetekoan, ordu kreditua agortuta izanik lanorduz kanpo euskara ikasten jarraitzen duten langileen azterketa bat egingo da eta aztertuko zer-nolako neurriak har daitezkeen lanordu barruan ikas dezaten.

Bestalde, aurreko UPV/EHUko Euskararen Plan Gidarian zehazten zen bezala, Euskara ikas-teko 5 orduko liberazioez baliatzen diren langileek konpromisoa hartu behar dute beren lanpostuei derrigortasun-data jartzeko —lanpostuak lehenagotik datarik ez balu, jakina— dago-kien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ondoren.

3. HE lortzea

Ikusirik 2. hizkuntza-eskakizunak oinarritzko maila baino ez duela ziurtatzen, ulermenean, mintzamenean eta irakurmenean, eta behe-mailako gaitasuna idazmenean, hizkuntza-eskakizun hori duten langileek aukera izango dute, azken urteotan egin den bezala, lanorduetan euskara ikasten jarraitzeko 3. hizkuntza-eskakizuna lortzeko. Horretarako, liberazioak eskainiko dira, eta ohiko irizpideen arabera hautatuko dira eta ohi bezala egingo dira kontratazioak, hala behar izanez gero.

AZPkoen prestakuntza

Hizkuntza-eskakizuna lortzeko ibilbide horretaz gainera, UPV/EHUren helburuen artean bere langile (izan irakasle, izan administrazio eta zerbitzuetako langile) guztien prestakuntza dago; UPV/EHUko estatutueta 117. **artikulu**an adierazten den bezala, «1. UPV/EHUko langileen euskalduntze prozesua eta lanerako prestatzekoa planifikatu egingo da. Gobernu Kontseiluak ezarriko ditu irizpideak eta lehentasunak, langile horiek unibertsitateko jarduerak euskaraz egiteko gai izan daitezten.»

Beraz, AZPkoentzat ikastaro bereziak antolatuko dira beren euskara maila hobetzeko. Horrez gainera, unibertsitateko zerbitzuetatik eskainitako programak eta baliabideak ere ezagutarazi eta erabiltzeko bidean jarriko dira; horretarako, haien berri eman, gaurkotu, beharren arabera moldatu eta ezagutaraziko dira.

Euskara Zerbitzua, UPV/EHUko sailak, kanpoko erakundeak (Elhuyar, UEU, UZEI,...) urteetan aritu dira horrelako lana aurrera eramaten, eta hurrengo urteotan, baliabide eta behar berriei irekita egonik, ildo beretik jarraitzeko asmoa dago. Bai eta, zentroetako Euskara Batzordeetatik bideratuta, eta Campuseko euskara arduradunaren koordinaziopean, barneko ikastaroak ematea, motzak eta ordu-lanetan EHUko erabiltzaileei zuzenduta, hau da, menpekoentzat, erregistroan eta idazkaritzan dauden langileentzat, eta, oro har, jende aurrean lan egiten dutenentzat. Ikastaroen bidez, hiztegia eta lexiko propioa landuko da, eta haren erabilera indartu, eskutizak, kartelak, inprimakiak, idazki guztiak elebidunak eta kalitatezkoak izan daitezten.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren eskakizunak dauzkatentzat edo izan behar dutenentzat ikastaro bereziak ematea, zentroan bertan erabilera sustatzeko. Bide batez, bi helburu lor ditzakegu: alde batetik, hizkuntza eskakizuna lortzea, eta bestetik, langileek dauzkagun hizkuntza-eskakizunak mantentzea.

Bestalde, AZPkoentzat unibertsitateak egiten duen formazio-ikastaroetan, euskaraz eskaintzen diren ikastaroen eskaintza handituko da.

Bestalde, eta beste administrazio batzuek egiten duten bezala, hitzarmen bat egingo da HAEErekin bi erakundeen artean deialdi bat egiteko langileen akreditazioa lortzeko. UPV/EHUko langileei zuzendutako frogak izango litzateke eta HAEEEK emango luke titulua.

Jendaurreko arreta elebiduna ematea

Aurreko euskara planean indar berezia egin zen jendaurreko arreta dela eta, atezain nagusien eta menpekoen hizkuntza-eskakizunen derrigortasunetan. Izan ere, UPV/EHUko estatu-tuetan oinarriturik eta 86/1997 dekretuaren 20. atalean, lanpostuari dagokion jarduera betetzerakoan jendearekin izaten den harremana aipatzen dena kontuan izanik, neurriak jartzen jarraitu behar dugu plan honen aurkezpenean ezarritako helburuak lortzearren; hots, herritarrak euskaraz nahiz gaztelaniaz eroso senti daitezzen beren jardunean. Horrek, jakina, jendaurreko langileek euskara eta gaztelania ezagutzea eskatzen du.

Alde horretatik, neurriak hartu behar dira jendaurreko zerbitzuetan euskaraz eta gaztelaniaz artatu ahal izateko bertaratzen den herritarra. Aurreko Planean ezarritako irizpideari, «lanpostuen zerrendan agertzen ez diren aldi baterako premiak bete behar direnean, eta jendaurreko lanpostuak badira, kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna eskatuko da», eutsiko zaio; hau da, kontrataziorako irizpideetan hizkuntza-eskakizunari lehentasuna emango zaio, eta nahitaezkoa izango da lanpostua betetzeko dagokion hizkuntza-eskakizuna izatea. Neurri honi jarraipen zorrotza egingo zaio.

Plangintzaldi honetan, honako lanpostu hauei jarriko zaizkie derrigortasuna:

- Plazaren titularrak hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten postuei.
- Planak irauten duen bitartean, erretiroa har dezaketen langileen postuei.
- Jendaurreko zerbitzua emateko daudenei,
- eta euren zerbitzuan derrigortasunik gabeko lanpostu asko dauzkaten hainbat posturi.

Ondoren, abian den AZPko langileen lekualdatze prozesua amaitzean, eta kontuan izanik azken planaren luzapenean adostutakoa, berriro gainbegiratuko dira lanpostuak eta arestian aipatutakoen irizpide berdinak jarraituz, jarri ahalko dira derrigortasun gehiago, edo orain jarritako baten bati kendu lekualdatze horren ondorioz titularrak hizkuntza-eskakizuna ez balu, beti ere jendaurreko zerbitzuetan izan ezik. Horren guztiaren ondorioz, %65 eta %70 bitarteko derrigortasun kopurua lortzeko konpromisoa dago. Era berean, plangintzaldi honek dirauen bitartean hizkuntza eskakizunak aztertuko dira plangintzaldian A, C, C/D, I eta III taldeetan ezarritako 1.6 eta 1.7 helburuak betetzearren.

Lanpostuen zerrenda

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Errektoregoa	Errektorearen Bulegoa	F831	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
Idazkaritza Nagusia	Idazkaritza	F959	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Arabako Campuseko Errektoreordetza		F11	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza		F17	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
Euskararen Arloko Errektoreordetza	Argitalpen Zerbitzua	F67	Argitalpen Zerbitzuko burua	3/2017.12
		L38	Argitalpen zerbitzuko kopiagintzaren arduraduna	2/2014.01
		L1	Argitalpen zerbitzuko zuzendari teknikoa	3/2014.01
Hedakuntzaren eta Transferentziaren Arloko Errektoreordetza		F39	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza		F57	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
	Hedakuntza eta Azpiegituren Zerbitzua	F50	Ikerketari laguntzeko Bulegoko burua	2/2014.01
		F47	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F921	Administrari laguntzailea	2/2014.01
	Enpresekiko Harremanak	F42	Administrari orokorra	2/2017.12
	Ikerketako Zerbitzu Nagusiak SGIKER	F1011	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Europako proiektuak	F48	Administrari laguntzailea	2/2014.01	

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data	
Irakasle- Ikertzaileen Arloko Errektoreordetza	Irakasleen Zuzendaritza	F1013	Administrari laguntzailea	2/2017.12	
	Irakasleen eta Ikertzaileen Plantilla Kudeaketa	F840	Administrari laguntzailea	2/2017.12	
Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetza	Nazioarteko Harremanak	F41	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01	
	Graduondoko Ikasketen Zerbitzua	F81	Bulegoko burua	2/2017.12	
		F86	Administrari laguntzailea	2/2014.01	
Koordinazioaren Arloko Errektoreordetza	Barne Kontrola	F130	Administrari laguntzailea	2/2014.01	
		F126	Administrari laguntzailea	2/2014.01	
Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzuki- zunaren Arloko Errektoreordetza	Ikasleak	F940	Orientazioko teknikaria	3/2014.01	
		F941	Orientazioko teknikaria	3/2014.01	
		F1057	Orientazioko teknikaria	3/2014.01	
		L430	Ikasle ezinduei laguntzeko teknikari espezialista	2/2014.01	
		L431	Ikasle ezinduei laguntzeko teknikari espezialista	2/2014.01	
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren Arloko Errektoreordetza	Ikasketa Berrikuntza	F642	Administrari laguntzailea	2/2014.01	
		F643	Administrari laguntzailea	2/2014.01	
		L400	Ebaluazioko teknikaria	3/2014.01	
	Akademia Gestioa	F88	Bulegoko burua	2/2014.01	
		F93	Administrari laguntzailea	2/2014.01	
	Graduko Ikasketen Zerbitzua	Graduko Ikasketen Zerbitzua	F96	Ikasleen ataleko burua	3/2014.01
			F98	Bulegoko burua	2/2014.01
			F865	Administrari laguntzailea	2/2014.01
			F89	Bulegoko burua	2/2014.01
			F94	Administrari laguntzailea	2/2014.01
F95			Administrari laguntzailea	2/2014.01	
F105			Administrari laguntzailea	2/2014.01	

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Gerentzia	Segurtasuna	F1026	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
Kontabilitate eta Aurrekontuen Gerenteordetza	Kontabilitatea	F111	Aurrekontu Kontabilitatearen zerbitzuko burua	3/2014.01
		F113	Bulegoko burua	2/2014.01
		F112	Zerbitzu zentraletako gaitua	2/2017.12
		F115	Kontabilitateko administrari laguntzailea	2/2014.01
		F120	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F123	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F930	Ondarearen Kontrol eta Gestioaren arduraduna	2/2014.01
		F931	Inbentarioaren arduraduna	2/2014.01
	Aurrekontuak	F131	Aurrekontuen zerbitzuko burua	3/2014.01
Pertsonaleko Gerenteordetza	AZPren Zerbitzua	F851	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F953	Langileak Hautatu eta Lanpostuak Betetzeko teknikaria	3/2014.01
	Irakasleen eta Ikertzaileen Zerbitzua	F832	Teknikari abokatua	3/2014.01
		F149	Deialdi eta Lehiaketen ataleko burua	3/2014.01
		F157	Administrari laguntzailea	2/2017.12
	Nominen administrazioa	F162	Nominetako administrari laguntzaile arduraduna	2/2017.12
		F158	Nominen ataleko burua	2/2014.01
		F160	Nominetako administrari laguntzaile arduraduna	2/2014.01
	Prebentzio Zerbitzua	F167	Enpresako EUD	3/2014.01
		F924	Prebentzioko teknikaria	3/2014.01
	Gipuzkoako Campuseko Gerenteordetza	Gipuzkoako Campuseko Zerbitzua	F835	Administrari laguntzailea
F19			Administrari laguntzailea	2/2014.01
F27			Administrari laguntzailea	2/2014.01
Bizkaiko Campuseko Gerenteordetza	Bizkaiko Campuseko Zerbitzua	L52	Kirolen arduraduna	3/2014.01

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Odontologia Klinika		F932	Bulegoko burua	2/2014.01
		F934	Administrari laguntzailea	2/2017.12
		L280	Klinikako laguntzailea	2/2017.12
Informazio eta Komunikazio Teknologien Gerenteordetza		F939	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
	Gestiorako Informatika Gunea G.I.G.	L17	Sistemetako teknikaria	3/2014.01
		L20	Sistemetako teknikaria	3/2014.01
		L226	Sistemen analista	3/2014.01
		L25	Aholkularia	2/2014.01
		L9	Sistemetako teknikaria (Proiektuak)	3/2014.01
		L10	Sistemetako teknikaria (Proiektuak)	3/2017.12
	Bezeroak	L320	Aholkularia	2/2014.01
	Produkzioa	L15	ekoizpeneko burua eta Bizkaiko koordinatzailea	3/2014.01
		L27	IKTen arloaren arduraduna	3/2014.01
		L298	Sistemetako teknikaria	3/2014.01
		L196	Sistemen analista	3/2014.01
		L197	Sistemen analista	3/2014.01
		L292	Sistemen analista	3/2014.01
		L29	Aholkularia	2/2014.01
L28		Sistemen analista	3/2014.01	
Telefono Komunikazioen Zerbitzua	L299	Aholkularia	2/2014.01	
	F378	Telefonista	2/2014.01	
	F336	Telefonista	2/2014.01	
	F498	Telefonista	2/2014.01	
	F626	Telefonista	2/2014.01	
	F197	Telefonista	2/2014.01	
Ondare eta Kontratazioko Gerenteordetza		F604	Telefonista	2/2014.01
		F1054	Kargudunaren idazkaria	2/2014.01
	Kontratazioak eta Erosketak	F844	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F183	Ekipamendu orokor eta zientifikoaren arduraduna	2/2014.01
Ondarea	F173	Erregistro, Arrisku eta Aseguruetako teknikaria	3/2014.01	

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia		F1059	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
Gizarte Kontseilua		F204	Administraria	2/2014.01
		F205	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Arabako Campuseko Biblioteka	Irakaskuntza eta Ikerketarako Laguntza	F217	Bibliotekako administrari laguntzailea	2/2014.01
	Bilduma eta Prozesuen Kudeaketa	F215	Bibliotekako laguntzailea	3/2014.01
Gipuzkoako Campuseko Biblioteka	Ikasteko laguntza	F227	Bibliotekako administrari laguntzailea	2/2014.01
	Bilduma eta Prozesuen Kudeaketa	F231	Bibliotekako laguntzailea	3/2014.01
		F223	Bibliotekako administrari laguntzailea	2/2017.12
Bizkaiko Campuseko Biblioteka	Irakaskuntza eta Ikerketarako Laguntza	F296	Bibliotekako laguntzailea	3/2014.01
		F298	Bibliotekako laguntzailea	3/2017.12
	Ikasteko laguntza	F289	Bibliotekako laguntzailea	3/2017.12
Farmazia Fakultatea	Ikastegia	F314	Bulegoko burua	2/2014.01
		F315	A Administratzailea	3/2014.01
		F304	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F316	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		L93	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
		L97	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
	Sailak	F648	Saileko idazkaria (definitu gabea)	2/2014.01
		F825	Farmazia, Elikadura, Teknologia eta Animalia Ekoizpena saileko idazkaria	2/2017.12
		L107	Farmazia, Elikadura, Teknologia eta Animalia Ekoizpena saileko irakaskuntza eta ikerketarako laguntzarako teknikaria	3/2014.01
Letren Fakultatea	Ikastegia	F329	A Administratzailea	3/2014.01
	Sailak	F704	Ingeles eta Aleman Filologia saileko idazkaria	2/2014.01

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Enpresa Ikasketen U.E. (Araba)	Ikastegia	F1020	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Gasteizko Irakasleen U.E.	Ikastegia	F337 F1022	Bulegoko burua Administrari laguntzailea	2/2014.01 2/2017.12
Gizarte Langintzako U.E. (Araba)	Ikastegia	F758	Bulegoko burua	2/2014.01
Gasteizko Ingeniaritzako U.E.	Ikastegia	F351 F1023	Bulegoko burua Administrari laguntzailea	2/2014.01 2/2014.01
	Sailak	L167	Meatze eta Metalurgia Ingeniaritza eta Materialen Zientzia saileko irakaskuntza eta ikerketarako laguntzarako teknikaria	3/2014.01
Kimika Zientzien Fakultatea	Ikastegia	F362	A Administratzailea	3/2014.01
		L113	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
Zuzenbide Fakultatea	Ikastegia	F873 F907	Administrari laguntzailea Administrari laguntzailea	2/2014.01 2/2014.01
	Sailak	F985	Enpresa zuzenbidea saileko Administrari laguntzailea	2/2014.01
Informatika Fakultatea	Ikastegia	F392	A Administratzailea	3/2014.01
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Ikastegia	F410	A Administratzailea	3/2014.01
		F987	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Psikologia Fakultatea	Ikastegia	F396	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Arkitektura G.E.T.	Ikastegia	F419	A Administratzailea	3/2014.01
		F412	Administrari laguntzailea	2/2014.01

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Erizaintzako U.E. (Gipuzkoa)	Ikastegia	F584	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
Donostiako Irakasleen U.E.	Ikastegia	F436	Bulegoko burua	2/2014.01
		F428	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Donostiako U.E. Politeknikoa	Ikastegia	F441	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
		F448	Koordinatzailea	3/2014.01
		F440	Administrari laguntzailea	2/2014.01
	Sailak	L141	Matematika aplikatua saileko laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
		L164	Ingeniaritza Makanikoa saileko laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
		L162	Sistemen Ingeniaritza eta Automatika saileko irakaskuntza eta ikerketarako laguntzarako teknikaria	3/2014.01
Materialen Fisika Unitatea	Ikastegia	F1024	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
Kriminologiaren Euskal Institutua		F1084	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Ikastegia	F1155	Administrazio burua	3/2017.12
		F464	Bulegoko burua	2/2014.01
		F457	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
		F453	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		L264	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
		L378	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
		L379	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
	Sailak	F680	Fisika Aplikatua II saileko Idazkaria	2/2014.01
		F681	Materia Kondentsatuaren Fisika saileko Idazkaria	2/2014.01
		F684	Ingeniaritza Kimikoa saileko Idazkaria	2/2014.01
		F900	Estratigrafia eta Paleontologia saileko Idazkaria	2/2014.01
		F717	Mineralogia y Petrologia saileko idazkaria	2/2014.01
		F741	Kimika Ez-organikoa saileko idazkaria	2/2014.01
		F743	Kimika Analitika saileko idazkaria	2/2014.01

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Arte Ederren Fakultatea	Ikastegia	F469	Administrari orokorra	2/2014.01
		F471	Administrari orokorra	2/2014.01
		F467	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		L232	Multimedia sistemetako teknikari espezialista	2/2014.01
	Sailak	F735	Irudigintza saileko Idazkaria	2/2014.01
		L128	Irudigintza saileko laborategiko ofiziala	2/2014.01
F736		Eskultura saileko Idazkaria	2/2014.01	
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Ikastegia	F489	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
		L414	Informatikako teknikari espezialista	2/2014.01
	Biblioteka	F243	Bibliotekako teknikari laguntzailea	2/2014.01
	Sailak	F654	Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak saileko idazkaria	2/2014.01
		F897	Ekonomia Aplikatua V saileko Idazkaria	2/2014.01
		F919	Ekonomia Analisiaren Oinarriak I saileko idazkaria	2/2014.01
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Ikastegia	F509	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		L198	Multimedia sistemetako teknikari espezialista	2/2014.01
		L267	Informatikako teknikari espezialista	2/2014.01
	Sailak	F656	Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea saileko Idazkaria	2/2014.01
		F658	Soziologia eta Gizarte Langintza saileko idazkaria	2/2014.01


Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Ikastegia	F532	Administrari orokorra	2/2014.01
		F537	Saileko Idazkaria	2/2014.01
		F539	Saileko Idazkaria	2/2014.01
		F540	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
		F529	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F533	Administrari laguntzailea	2/2014.01
	Sailak	F896	Pediatria saileko idazkaria	2/2014.01
		F685	Zelulen Biologia eta Histologia saileko Idazkaria	2/2014.01
		F689	Fisiologia saileko Idazkaria	2/2014.01
		L150	Fisiologia saileko laborategiko teknikari espezialista	2/2017.12
		L151	Fisiologia saileko laborategiko teknikari espezialista	2/2017.12
		F692	Medikuntza saileko Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F697	Estomatologia II saileko Idazkaria	2/2014.01
		F725	Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa saileko Idazkaria	2/2014.01
		L172	Neurozientziak saileko Anatomia tailerreko ofiziala	2/2014.01

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Ikastegia	F569	Bulegoko burua	2/2014.01
		F553	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F554	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F556	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F557	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		L385	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
		L420	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
	L438	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01	
	Sailak	F678	Enpresen Antolakuntza saileko idazkaria	2/2014.01
		F683	Matematika Aplikatua saileko Administrari laguntzailea	2/2014.01
		F902	Sistemen Ingeniaritza eta Automatika saileko idazkaria	2/2014.01
		F728	Makina eta Motor Termikoak saileko idazkaria	2/2014.01
		F729	Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika saileko idazkaria	2/2014.01
		L166	Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika saileko irakaskuntza eta ikerketarako laguntzarako teknikaria	3/2014.01
Nautika eta Itsasontzi-Makineria G.E.T.		Ikastegia	F779	B Administratzailea
	F782		Administrari laguntzailea	2/2014.01
	Biblioteka	F791	Ikastegiko bibliotekaren arduraduna	3/2014.01
Enpresa Ikasketen U.E. (Bizkaia)	Ikastegia	F582	A Administratzailea	3/2014.01
		F581	Bulegoko burua	2/2014.01
		F574	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
Erizaintzako U.E. (Bizkaia)	Ikastegia	F592	B Administratzailea	3/2014.01
		F593	Administrari orokorra	2/2017.12
		F587	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
	Sailak	F687	Erizaintza saileko idazkaria	2/2014.01

Zerbitzua	Azpizerbitzua	Lanpostua	Izena	HE/D. Data
Bilboko Irakasleen U.E.	Ikastegia	F596	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Lan Harremanen U.E.	Ikastegia	F614 F613	A Administratzailea Bulegoko burua	3/2014.01 2/2014.01
Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E. (Bizkaia)	Ikastegia	F629	A Administratzailea	3/2014.01
		F619	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01
		F913	Administrari laguntzailea	2/2014.01
		L425	Laborategiko teknikari espezialista	2/2014.01
	Biblioteka	F256	Ikastegiko bibliotekaren arduraduna	3/2017.12
Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko U.E.	Ikastegia	F639	B Administratzailea	3/2014.01
		F630	Administrari laguntzailea	2/2014.01
Biofisika Unitatea	Ikastegia	F992	Kargudunaren idazkaria (ikastegiak)	2/2014.01

Derrigortasun hauek guztiak jarrita, honela gelditzen dira lehengo eta oraingo kopuruak termino absolutuetan:

1/A taldean	2/B taldean	3/C taldean	4/D taldean	5/E taldean	Guztira	
138	47	254	147	220	806	Derrigor. duten lanpostuak
29	25	106	66	0	226	Plangintzaldian jarriko direnak
167	72	360	213	220	1.032	Guztira



Datu hauek, aurretik aipatzen den bezala, berraztertu eta osatu beharko dira leku-aldatze prozesu amaieran gerta daitezkeen aldaketekin.

Euskararen eguneroko erabilera sustatzea

Denok dakigun bezala, hizkuntza baten ezagutza eta erabilera ez dira maila berean egoten, ez gutxienez egoera elebidunetan, eta are gutxiago egoera diglosikoetan. Azterketa guztiek erakusten dute euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko desoreka. Askotariko arrazoiak egon daitezke hori horrela izateko: euskara lan-hizkuntza soila izatea, lehengo inertziak, gaztelaniaz maila jasoagoa izatea hiztunak, erosotasun kontua, hiztunen artean euskaraz ez dakien norbait egotea... baina baita gure artean hain ohikoa den kasua, besteak euskara ez dakiela uste izatea. Izan ere, sarritan gertatzen da euskal hiztunak euskaraz eskatzea zerbitzu bat eta erdaraz aritzeko eskatzea: azkenean hiztun horrek erdarara jotzen du, baita euskaldunen aurrean ere, erdalduna dela uste izanda.

Ziur gaude aurreko planaren luzapen-egokitzapenaren bigarren eranskinean onarturiko neurriak, «UPV/EHUren esparruan, eskolatik kanpo, bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du-

ten jarraibideak eta irizpideak», aplikaturik dexente handiago izango dela euskararen erabilera unibertsitatean.

Euskararen erabilera aztertzeke eta sustatzeko, planak egin dira hainbat zentrotan edo ki-degotan («Atezainok euskaraz», esaterako). Hurrengo bost urteetan ikastaro eta trebakuntza saio bereziak eskaintzen jarraituko dugu tokian tokiko lan-jarduna euskaraz ikasteko eta ikas-taroan ikasitakoa lanean erabiltzeko.

Ildo honetatik, datozen urteetan sortuko diren lanpostuei hizkuntza-eskakizuna ezartzera-koan, honako irizpide hauek izango ditugu kontuan:

- Ikastegi eta zerbitzuetako gainerako lanpostu berriei dagokienez, sortuko den lanpostu bakoitzaren ezaugarriak zehatz-mehatz aztertuko dira.
Kontratu berrietan, eta batik bat goreneko postuetan (A taldea, B taldea), data gainditua duten hizkuntza-eskakizunak ezarriko dira eta talde hauetako lanpostu batzuetan 4. HE ezartzea baloratuko da ezagutza hobetzeko eta erabilera bermatzeko helburuarekin.
Hizkuntza-eskakizunaren txostena prestatzerakoan, hainbat faktore hartuko dira kontuan, hala nola: lanpostu horretan bete beharreko zereginak, jendaurreko harremanen maiztasuna eta UPV/EHUko AZPko plantillaren eta, oro har, euskal gizartearen erreali-tate soziolinguistikoa; alde horretatik, arloko arduradunaren, administrari-laguntzaileen eta liburutegietako langileen kasuan gutxienez, nahitaezko derrigortasuna ezarriko da.
- Indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik, gainditutako derrigortasun-data duten lan-postuak betetzeko dagozkien hizkuntza-eskakizunak egiaztatu beharko dira. Gainerako kasuetan, euskara beti meritu gisa baloratuko da. 1. eta 2. Hizkuntza-eskakizuna eslei-tuta duten lanpostuen kasuan, % 5etik % 10era bitartean baloratuko da. 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen kasuan, berriz, % 11tik % 20ra bitartekoa izango da balorea. Portzentajeok prozesu bakoitzean lorturiko puntuazio osoaren gainean kalkulatuko dira. Halere, gai honi buruzko adostasun zabaleko akordio zehatzik lortzen ez den bitartean, eskatuko diren portzentajeak ondokook izango dira:
 1. HE duten lanpostuetan: % 5a
 2. HE duten lanpostuetan: % 10a
 3. HE duten lanpostuetan: % 15a
 4. HE duten lanpostuetan: % 20a.

Hizkuntza Politikaren koordinazioa hobetzeko.

HAEEK hizkuntza-programak eskaini eta antolatzen ditu. Programa horien eraginkortasuna areagotzeko xedearekin, unibertsitateak batzorde misto bat sortzea proposatuko dio HAEEKo zuzendaritzari. Aipatutako batzordearen zereginak hauek izango lirateke: ikastaroen jarraipena egitea, azterketen emaitzak ebaluatzea, ordu-kredituaren ezarpena balioestea eta, hala badagokio, programa horien emaitza hobetzeko neurriak adostea.

Hauek izango dira batzordearen osakideak: HAEEKo ordezkari bat, UPV/EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzako beste bat eta unibertsitateko AZPkoen ordezkari sindikal bi. AZPkoen ordezkari hori urtero txandakatuko da sindikatuen artean. Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da.

4.2. Euskarazko irakaseskaintza

Europako Unibertsitate Eremuaren barnean 2013/14 ikasturtean ezarri dira gradu-ikasketak bere osotasunean. Prozesu honek aldaketa nabarmenak ekarri ditu gure titulazioetan, eta hurrengo urteetan ere izango dira graduonodokoen ingurukoak ere. UPV/EHUK dituen helburuen artean, irakaskuntza gure herrialdeko bi hizkuntza ofizialetan eskaintzea dago. Horrek ez du esan nahi ikastegi guztietan titulazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaini behar direnik, ez eta graduondoko eskaintza graduoko eskaintzaren parean dagoenik ere.

Ditugun baliabideen erabilera egokia eginez, eskaintza zabala egin behar dugu, baina baita irizpide batzuei lotua ere; alde horretatik, posible izango da ikastegi batean graduoko eskaintza euskaraz bakarrik eskaintzea (gaur egun Donostiako Irakasleen U. Eskolan gertatzen den bezala) edo gradu batzuk gaztelaniaz eskaintzea zentro batzuetan bertan masa kritikorik ez dagoenean eta titulazio hori Unibertsitateko beste zentro batean eskaintzen bada.

Edozein modutan, Unibertsitateko joera nagusia, orain arte egin den bezala, graduoko eskaintza bi hizkuntza ofizialetan ematea izango da; izan ere, gure Estatutuetoako **17. artikuluko** 1. atalean ikasleen eskubideei buruz ari delarik, honako hau dio: «*b) Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea*».

Beraz, graduko eskaintzan euskarazko eta gaztelaniazko eskaintzaren parekotasuna bilatu beharko dugu.

Hala bada, 2012/13 planaren luzapen-egokitzapenean ezarritako hizkuntza-ereduak kon-tuan izango ditugu hurrengo urteetako helburuak ezartzerakoan:

- D+: Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa.
- D: Euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren adinakoa.
- C: Gradu osoa euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez-ofizialetako nahitaezkoak izan ezik).
- B: Nahitaezko guztiak euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez-ofizialetan irakasten direnak izan ezik)
- A: Lehenengo bi kurtsoak euskaraz ikasteko aukera.

Eta horien arabera, hauxe izango da plan honen amaierarako UPV/EHUko graduatan izan beharreko eredia (gorriz markatuta daude aurrekotik hona eginiko aurrerapena), betiere tal-dea osatzeko gutxieneko eskaera izanez gero:

Ikastegia	Izena:	Eredua
Farmazia Fakultatea	Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua	B
Farmazia Fakultatea	Giza Elikadurako eta Dietetikako Gradua	C
Farmazia Fakultatea	Ingurumen Zientzietako Gradua	D
Farmazia Fakultatea	Farmaziako Gradua	C
Letren Fakultatea	Ingeles Ikasketetako Gradua	—
Letren Fakultatea	Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua	—
Letren Fakultatea	Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	D
Letren Fakultatea	Filologiako Gradua	—
Letren Fakultatea	Euskal Ikasketetako Gradua	D+
Letren Fakultatea	Historiako Gradua	D
Letren Fakultatea	Artearen Historiako Gradua	C
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua	D
Gasteizko Enpresa Ikasketen U.E.	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	C

Ikastegia	Izena:	Eredua
Gasteizko Irakasleen U.E.	Lehen Hezkuntzako Gradua	D+
Gasteizko Irakasleen U.E.	Haur Hezkuntzako Gradua	D+
Gasteizko Gizarte Langintzako U.E.	Gizarte Langintzako Gradua	D
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	A
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	A
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua	B
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	C
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Geomatika eta Topografia Ingeniaritzako gradua	C
Kimika Zientzien Fakultatea	Kimikako Gradua	D
Zuzenbide Fakultatea	Zuzenbideko Gradua	D
Zuzenbide Fakultatea	Kriminologiako Gradua	C
Informatika Fakultatea	Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Gizarte Hezkuntzako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Pedagogiako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Gizarte Antropologiako Gradua	D
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Filosofiako Gradua	D
Psikologia Fakultatea	Psikologiako Gradua	D
Arkitektura G.E.T.	Arkitekturaren Oinarrietako Gradua	D
Donostiako Enpresa Ikasketen U.E.	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua	D
Donostiako Erizaintzako U.E.	Erizaintzako Gradua	D
Donostiako Irakasleen U.E.	Haur Hezkuntzako Gradua	D+
Donostiako Irakasleen U.E.	Lehen Hezkuntzako Gradua	D+
Donostiako U.E. Politeknikoa	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	D
Donostiako U.E. Politeknikoa	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	D
Donostiako U.E. Politeknikoa	Arkitektura Teknikoko Gradua	D
Donostiako U.E. Politeknikoa	Ingeniaritza Zibileko Gradua	C
Donostiako U.E. Politeknikoa	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	D
Eibarko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Energia Berriztagarrietan Ingeniaritzako Gradua	D

Ikastegia	Izena:	Eredua
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Fisikako Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Matematikako Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Kimikako Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Bioteknologiako Gradua	B-C
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Kimika Ingeniaritzako Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Geologiako Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Biologiako Gradua	D
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	C
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua	B-C
Arte Ederren Fakultatea	Arteko Gradua	C
Arte Ederren Fakultatea	Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua	C
Arte Ederren Fakultatea	Sorkuntza eta Diseinuko Gradua	C
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua eta Zuzenbide Gradua	C-D
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Ekonomiako Gradua	C-D
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Finantza eta Aseguruetako Gradua	B
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua	B
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Marketineko Gradua	C
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Kazetaritzako Gradua	D
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua	D
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua	D
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua	D
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Soziologiako Gradua	D
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Odontologiako Gradua	B
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Medikuntzako Gradua	D
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Fisioterapiako Gradua	C
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua	D
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Telekomunikazioaren Ingeniaritza Teknikoko Gradua	C
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua	C
Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	Ingurumen Ingeniaritzako Gradua	B

Ikastegia	Izena:	Eredua
Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T.	Ingeniaritza Nautiko eta Itsas Garraioko Gradua	B
Nautika eta Itsasontzi-makineria G.E.T.	Itsas Ingeniaritzako Gradua	B
Bilboko Enpresa Ikasketen U.E.	Negozioen Kudeaketako Gradua	D
Leioako Erizaintzako U.E.	Erizaintzako Gradua	D
Bilboko Irakasleen U.E.	Lehen Hezkuntzako Gradua	D+
Bilboko Irakasleen U.E.	Gizarte Hezkuntzako Gradua	D+
Bilboko Irakasleen U.E.	Haur Hezkuntzako Gradua	D+
Lan Harremanen U.E.	Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua	C
Bilboko I.I.T.U.E.	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua	D
Bilboko I.I.T.U.E.	Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	D
Bilboko I.I.T.U.E.	Kudeaketa eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua	D
Bilboko I.I.T.U.E.	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	D
Meatzeen eta Herri Lanen I. T. U.E.	Meatzaritza eta Energia Ingeniaritzako Gradua	D
Meatzeen eta Herri Lanen I. T. U.E.	Ingeniaritza Zibileko Gradua	D

Helburuen betetze-mailaren jarraipena egin ahal izateko, ikastegiek hurrengo ikasturteko irakaskuntza-eskaintza aurkeztean, hizkuntza ereduaren betetze-mailari buruzko txostena bidaliko diote Euskararen arloko errektoreordeari. Hizkuntza eredia ehuneko ehunetan betetzen ez denean txosten arrazoitua aurkeztu beharko du ikastegiak gutxienez honako informazio honekin:

- Graduaren izena.
- Euskaraz eskaintzen ez diren irakasgaiak.
- Ikastegiaren txostena, graduaren zirkunstantziak arrazoiturik. Han, ikastegiak nahitaez zehaztuko du planaren iraupenaldian zein ahalegin egin duen dagokion eskaintza euskaraz bermatzeko (esaterako, taldeen eta ordutegien antolaketan, babestutako lanpostu eskariak,...).
- Sailaren txostena, irakasgai bakoitza zergatik ez den euskaraz eskaintzen arrazoiturik.

Han zehaztuko da, nahitaez, planaren iraupen-aldian zein ahalegin egin duen sailak dagokion eskaintza euskaraz emateko, irakasle elebidunek gaztelaniaz edo ingelesez ematen duten irakaskuntza, eta aldi horretan sailak eskatu dituen lanpostuen ezaugarriak.

Beste alde batetik, kontuan izanik Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak (2004) bere **45.3 artikuluan** dioena, «*Funts publikoz finantzatutako titulu berriak ezartzerakoan, taldeak finantzeko euskara erabiliho da lehentasuneko irizpide*», gradu guztiak bi hizkuntza ofizialetan eskaintzeaz gainera, graduondo profesionalizatzaileak ere hizkuntza bietan eskaini beharko dira, hizkuntza bietan antzeko eskaintza eginez; eta hori posible ez balitz, ondo justifikatutako arrazoiak jasoko dituen txosten bat egingo da, azalduko duena zeintzuk izango lirartekeen graduondo beste hizkuntzan ezartzeko erritmoa eta epeak. Txosten hori Gobernu Kontseiluak onartu beharko luke, aurretik Euskara Batzordeak beste txosten bat egin eta gero. Txosten hori aurkeztea eta euskara-eskaintzari buruz jasotako erritmoa eta epeen betetzea kontuan hartuko da UPV/EHUko graduondoaren eskaintza egitean. Plangintzaldian zehar UPV/EHUko master guztiek, ez badira hizkuntza ez-ofizial batean osoki eskaintzen, gutxienez irakasgai bat euskaraz eskaini behar izango dute.

Edozein modutan, Plan Estrategikoan ezarri bezala, plan honen amaierarako graduoko kredituen % 81etik gora iritsi behar dugu euskarazko eskaintzan.

Bestalde, ikusirik gradu guztiak ez direla bere osotasunean campus guztietan eskaintzen, Unibertsitateak ikasleei erraztasunak eman diezazkieke espediente-trasladoak ahalbidetuz, haien lurraldean A eredu eskainiz, beste lurralde batean B ereduan eskaintza izanda bertara ikasten joateko. Era berean, Iparralde eta Nafarroako Unibertsitateetan hainbat titulaziotan euskarazko eskaintza ez dagoen bitartean, hango ikasleei UPV/EHUn euskarazko ikasketak egitera erakartzeko neurriak inplementatu behar dira.

Medikuntzaren kasuan, aldiz, neurriak hartuko dira, UPV/EHU-Osakidetza hitzarmenak euskararen Plan Gidariaren helburuak eta irizpideak bere baitan jaso ditzan. Batzorde mistoak jarraipen zehatza egingo dio euskarazko eskaintzari, eta euskarazko eskaintza bermatu eta handitzeko neurri eraginkorrak aztertu eta abian jarriko ditu.

Graduondoko eskaintzari dagokionez, eredu eleaniztun baterantz jo beharko dugu, eta euskara, gaztelania eta ingelesa izango dira graduondoko hizkuntzak. Graduetako eskemak, talde

bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz, ez dirudi graduondoetan bideragarria denik. Izan ere, graduondoko ikasketetan hainbat hizkuntza biltzen dira; bestetik, graduondoko programa ofizialak askotan unibertsitate artekoak dira; ikasle gutxi matrikulatzen dira, beste herrialde batzuetako ikasleak matrikulatzen dira...; alde horretatik, egokiagoa dirudi graduondo batzuk euskaraz eskaintzea (besteak beste, baina ez bakarrik, euskal kulturaren eta hizkuntzaren ingurukoak), beste batzuetan irakasgaiak beste hizkuntzetan eskaintzea eta ikasle euskaldunen aldetik eskaria duten graduondoetan enborrezko eta derrigorrezko zenbait irakasgai bi hizkuntzetan eskaintzeko aukera ematea. Hala ere, aurretik aipatu izan den bezala, UPV/EHU graduondoko eskaintza guztiaren azterketa sakonari heltzen ari zaion une honetan, azterketa horretan euskarazko eskaintza ere kontuan izan beharko da, eta erabakiak esparru ezberdinetako artean hartu beharko dira. Edozelan ere, planaren amaieran eskainitako graduondo kopuruaren %25 gutxienez euskaraz izaten ahalegindu beharko gara.

Horretarako, besteak beste, eskaera nahikoa duten graduondokoetan bi talde osatuko dira, horietako bat euskarazkoa. Gainera, euskarazko graduondokoak bultzatzeko, euskara taldean lehenengo bi urteetan osatzeko ikasle kopuru minimoa jaitsi egingo da. Eta berezko titulu berriak sortzea sustatuko da, UEUrekin egin den bezala, laguntzarekin, etorkizuneko masterren hazia izan daitezkeela pentsatuz. Euskarazko berezko titulu horietan euskaraz emandako eskola-orduak, ordaindu beharrean irakasleak hala eskatuz gero JAPEan irakats-deskargu legez konputatuko dira, arautegietan egin beharreko aldaketak eginez.

Euskaraz egindako gradu eta master amaierako lanak euskaraz neurtuko dira, eta lan onen argitalpena bultzatuko, bai Euskararen arloko Errektoreordetzaren baliabideen bidez, bai arloko aldizkarietan parte hartuz. Gainera, UPV/EHUko master guztietan irakasle elebidunen gutxieneko presentzia bermatuko da ikasleek master amaierako lanak euskaraz egiteko eta defendatzeko eskubidea bermatzeko. Baliabideak ezarriko dira ikasle guztiei eskubide hau jakinarazteko.

Edozein modutan, argi dago oraindik ere gaur egun UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen artean desoreka linguistikoa dagoela; irakasle elebidun doktoreak gutxiago dira, eta, gainera, egoera eze-gonkorrean daude horietako irakasle asko. Bestalde, ikerketaren arloan ere errekonozimendu gutxiago dituzte irakasle elebarrak baino. Horrek guztiak, jakina, eragotzi egiten du irakasle haue-tako askoren eskaintza graduondoetan; baina Unibertsitateak azken urteotan daraman politikaren bidez, eragozpen horiek murrizten ari dira, eta lan egin beharko dugu gehiago murrizteko.

4.3. Irakasle eta ikertzaileen oreka linguistiko eta akademiko handiagorantz

Gutxienez arduraldi osoko irakasleen % 52, elebiduna.

UPV/EHUK bi baliabide ditu irakasle eta ikertzaileen desoreka linguistikoa zuzentzeko. Bate-tik, erretiroa dela-eta hutsik geratutako plaza elebakarrak amortizatzea, edo, bestela, plaza ho-riei euskarazko hizkuntza-eskakizuna derrigor ezartzea; eta bestetik, irakasleak euskalduntzea.

Argi dago azken aukera horrek oso emaitza pobreak izan dituela eskaini izan den urteetan (azken bi urteetan ez da deialdi berririk egin eta lehenagokoen prorrogak besterik ez dira egin). Beraz, esfortzu handiagoa egin behar da irakasle eta ikertzaileak euskalduntzera motibatzen. Irakasle eta ikertzaile ez-elebidun finkoak, kontratatuta dauden formazioko irakasleak, forma-zioko ikertzaileak eta behin-behineko gainerako irakasleak hizkuntzan prestatzen lagundu eta bultzatu behar zaie. Horretarako, ikastaroen laguntzak mantendu behar dira eta GAITZE pro-grama berrabiatu.

Beraz, erretiroa hartzen duten irakasleen plazak euskaldunduz edo horien amortizazioaren bi-dez plaza berriak sortzea izango da hurrengo urteetan erabili beharreko baliabidea UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileen arteko desoreka linguistikoa berdintzeko. Alde horretatik, hemendik aurrera erretiro baten bidez sortzen den plaza oro elebiduna izango da kontrako arrazoi sendo-rik ez dagoen bitartean.

Bestalde, plaza elebakarretan irakasle elebidunak dauden kasuetan, sailak edo irakasleak hala eskatuta, plaza horien perfil linguistikoa aldatzeari ekingo zaio.

Hori guztia horrela izanik, plan honen amaierarako UPV/EHUn lanpostuen zerrendan dau-den arduraldi osoko irakasleen % 52 gutxienez elebiduna izatea proposatzen da, eta arlo zienti-fiko guztietan gutxienera %45era ailegatzeko saiatuko gara.

Doktore elebidun gehiago

Gaur egun unibertsitateko irakasle izateko, behin betiko irakasle izateko, doktore izatea eska-tzen da, eta argi dago unibertsitateko irakasle guztiek doktore izan beharko dutela epe labur batean.

Alde horretatik, eta aurretik ere aipatu izan ditugun arrazoi batzuk direla medio, neurriak hartu beharko dira irakasle elebidunen artean doktoreen kopurua igotzeko. Helburu hori lortzeko proposatzen diren neurrietako batzuk honako hauek dira:

- Tesiak euskaraz egiteko deialdia indartzea.
- Irakasleen arloko Errektoreordetzarekin adostuta, lizentzia ematea tesia egiteko.
- Sailekin bilerak izatea hautagaien artean doktore izateko beharra azpimarra dezaten.
- Laguntzaile postu elebidunak ateratzea.

Edozein modutan, plan honen amaierarako, eta Plan Estrategikoak dioenarekin bat eginez, UPV/EHUn lanpostuen zerrendan dauden arduraldi osoko irakasleen %52k gutxienez elebiduna izan beharko du, eta hauetarik % 80 gutxienez, doktore.

4.4. **Euskarazko testugintza**

Azken urteotan Euskararen arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak eta UPV/EHUko irakasle askok egindako ahaleginak hor badaude ere, oraindik ezin dugu esan euskarazko testuen egoera ona denik. Izan ere, gaztelaniazko edo ingelesezko materialekin gertatzen ez den bezala, euskarazkoa guk geuk egiten ez badugu, beste inork ez du egingo. Hots, Euskal Herriko erakundeek eta irakasleek, eta horietako gehienak UPV/EHUn daude.

Bestalde, ECTS direlakoak ezartzerakoan behar berriak sortu dira, irakasteko era berriak, materia berriak,... eta horrek areagotu egin du ikasliburu eta ikasmaterialen beharra.

Ikasmaterial hori bi eratara sor daiteke: oinarrizko ikasliburuen itzulpena eginez, edo materiala UPV/EHUko irakasleek berek sortuz.

Itzulpenak

Erreferentziazko ikasliburuak nazioarteko aditu ezagunek idazten dituzte. Aditu horiek irakasgai baten edo antzekoak diren hainbat irakasgairen oinarrizko materia jasotzen dute, eta materia hori ikasketak burutzen ari diren ikasleek ezagutu beharrekoa izango da. Liburu ho-

riek ez dute egoeraren araberrako aldaketa handirik izaten; izan ere, zabaltzen duten ezagutza oinarritzakoa da: epe motzean aldaketarik izaten ez duena, beraz, liburu «klasikoak» izan ohi dira, hainbat urtetako indarraldia izaten dutenak.

Mota horretako argitalpenen ekoizpenak bultzada handia izan du azken 14 urteotan, Euskararen II. Plangintzaz geroztik. Nazioartean oinarritzakoa diren liburuak euskaratu dira, eta ekoizpen prozesuan kalitate-kontrolak areagotu; liburu guztiek, itzuli ondoren, bi berrikusketa izaten baitituzte, hizkuntzari dagokiona bata eta gaiari dagokiona bestea; horretan, Euskara Zerbitzuko adituak eta UPV/EHUko irakasleak aritzen dira.

Orain arte egindako itzulpenen kasuan, askoz handiagoa izan da sailen eta ikastegiaren eskaera UPV/EHUk emaniko erantzuna baino. Batetik, liburu bakoitzaren prozesua motela delako (arestian aipaturiko kalitate-bermerako beharrezkoa dena, eta itzulpenak sortzen dituen arazoez gain, egile-eskubideak lortzeko eta itzulpenak lehiaketa publikora atera eta azken esleipena egiteko behar den denbora ere kontuan izan behar da); bestetik, gure errekurtsioak mugatuak direlako. Horregatik guztiagatik, lehentasunak ezarri ohi dira (jakintza-arlo bakoitzean dauden ikasmaterialak, matrikulaturiko ikasleak, proposaturiko liburuen ezaugarriak,...). Lehentasun horiek ezartzerakoan, oreka bilatu beharko litzateke jakintza-arloen artean; premia handiak dituzten alorretan dauden arazoak konpontzeko neurriak hartuz; nolana ere, egoera egokiena ez izanagatik egoera hobea daukaten alorrak hobetzeko neurriak ere hartu beharko dira.

Ditugun baliabideak kontuan izanik (baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak), plan honek dirauen bitartean 30 eskuliburu itzultzea proposatzen da, eta liburu horiek aukeratzeko prozesua aurreko plangintzako berbera izatea:

- a) Ezarritako lehentasunak kontuan izanda, hiru Campusetako Euskara Batzordeek zerrenda bat egingo dute, itzuli beharreko liburuen proposamenekin. Batzorde bakoitzak kontuan izango ditu bere Campusak dituen beharrak, lehentasuna duten argitalpenak zeintzuk diren zehazteko, eta zehaztapen horien moldaketak egiteko. Beharren azterketa horrek bi alderdi hartu behar ditu kontuan: bata, alderdi kuantitatiboa (alor eta diziplina bakoitzean dagoen argitalpen-kopurua); bestea, alderdi kualitatiboa (dagoen materialaren gaurkotasuna eta kalitatea, kuantitatiboki egoera onean dauden alor eta diziplinen hutsune zehatzak). Campuseko errealitatera egokitzeko orduan, ez litzateke *a priori*

ezagutzaren arlo bakar bat ere bazterrean utzi beharko, nahiz eta beti eman behar zaien lehentasuna Ingeniaritzi eta Teknologiai.

Nolanahi ere, proposatutako liburuek honako irizpide hauek errespetatu behar dituzte:

- Enborrezko edo nahitaezko irakasgai baterako edo bat baino gehiagotarako —eta batez ere lehen zikloko irakasgaietarako— izatea.
- Liburuak balizko erabiltzaile kopuru garrantzitsua izatea (lehentasuna emango zaie titulazio bat baino gehiagotarako baliagarriak direnei).
- Liburu «klasikoa» izatea, eta azaltzen duen gaiak gutxienez 5 urtez garrantzia izango duela aurreikustea (adibidez, adierazgarria da liburu originala eta segidako hainbat argitalpen dituena izatea).
- Originalak 400 orrialde baino gehiago ez izatea, arazoizko salbuespenak alde batera utzita.

- b) Euskara Batzordeak, Euskararen arloko errektoreordea buru izanik eta Euskara Zerbitzuak aholkaturik, Campusek igorritako proposamenak jasoko ditu, eta itzuli beharreko liburuak behin betiko hautatuko ditu, 2014 eta 2016ko deialdietan.
- c) Behin hautaketa eginda, Euskararen arloko errektoreordeak itzuli behar diren liburuak argitaratzeko izapideak egingo ditu (egile-eskubideak lortu, itzulpena egiteko lehiaketa publikoa deitu, itzulpenaren hizkuntza eta gaia bera berrikustez arduratuko direnak izendatu,...).
- d) Hurrengo urteetan, izapide horiek egiten hasi aurretik, Campusetako Euskara Batzordeek urte bakoitzean itzuli beharreko liburuen indarraldia baliozkotuko dute. Proposamenen bat zaharkiturik geratuko balitz, Campusetako Euskara Batzordeek ordezkotako bat proposatu beharko lukete bazter utzitako liburuarentzat. Proposamen berri hori onartu edo baztertzeko eskumena unibertsitateko Euskara Batzordeak izango du.
- e) Argitaratutako eskuliburu berrien salmentari eta banaketari buruzko datuak Euskararen arloko Errektoreordetzak emango dizkio Euskara Batzordeari aldian-aldian. Behin liburua argitaratu ondoren, haren itzulpena proposatu zuen Campuseko Euskara Batzordeak liburuaren banaketaren jarraipena egingo du. Horretarako, batez ere kontuan izango du ea aipatzen den liburu hori agertzen den titulazioen gidetan argitaratzen diren bibliografiatan. Aipatzen ez bada, irakasgaiaren edo irakasgaiaren ardura daukanarekin harremanetan jarriko da, horren zergatiak jakiteko.

Euskararen arloko Errektoreordetzak euskaraz ari diren gainerako unibertsitateei igorriko die argitaraturiko materiala eta, ahal delarik, argitalpen-politika komuna koordinatuko du haiekin.

Azkenik, ikusirik azken bi hamarkadetan arlo honetan eginiko ekarpena handia izan dela baina ez oso ezaguna, euskarazko ikasliburuen erakusketa egingo da UPV/EHUko liburutegietan eta ikastegi guztietan, bakoitzari dagozkion jakintza-arloko materialarekin.

Ikasmaterialen eta ikasliburuen sorkuntza

Nazioarte-mailako ikasliburuen itzulpenaren ondoan, UPV/EHUko irakasleek sorturikoa bultzatu behar dugu. Izan ere, irakaslea da egokiena irakasgaiaren nondik norakoak eta irakasgai hori azaltzeko zer-nolako materiala behar den jakiteko. Ez hori bakarrik, irakasle askok urteetako esperientziaren ondoren materialak sortu eta eskoletan erabili ohi dituzte apunte gisa edo eskuliburu moduan.

Material hori normalean fotokopiatutako apunteen bidez edo koadernoen bidez banatzen da ikasleen artean, baina irakasle batzuek sarean ere esekitzen dituzte.

Azken urteotan, Euskararen arloko Errektoreordetzak material mota horren sorkuntza bultzatu du, berariaz horretarako deialdiak eginez: bata ikasmaterialetarako, eta bestea jandantik prest dauden unibertsitate-liburuak argitaratzeko. Deialdi horietan, laguntza eskaintzen zaio irakasleari, testuen hizkuntza-orrazketa eginez (Euskara Zerbitzuaren bidez) eta produktua ISBN zenbakia duelarik argitaratuz (Euskararen arloko Errektoreordetzaren izapideen bidez). Ikasmaterial eta ikasliburu hauek baloratuko dira JAPEan eta prozesu selektiboetan.

Argi dago ECTS ezartzeak eta titulazio berrien ikasketa-gidak egiteak apunte gisako material gehiagoren beharra ekarri dutela. Argi dago, orobat, hori dela une honetan argitalpengintzan egin behar dugun apustu handienetako bat. Azken deialdietan aurkeztu diren eskaintzak ikusita, gainera, esan dezakegu gora doala eskaera. Alde horretatik, esfortzu berezia egin beharko dugu hurrengo urteetan sorturiko ikasmaterialak argitaratzeko, nahiz eta argitalpena luzatu Euskara Zerbitzuko langileek zuzenketa linguistikoak egiteko prozeduragatik.

Edozein modutan, ikasmaterialak sortzeko deialdian aurkeztutako proiekturik ez da bazter-tuko aurrekontu falta dela eta, gutxieneko exijentzia-maila izanik betiere. Ikasmaterialak UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuak argitaratuko du (edizio elektronikoa edo paperean) ISBN zenbakia duela.

Euskaraz eginiko materialak gehiago baloratze aldera, komeniko litzateke irakasleen ordezkapenerako lan-poltsen eta gainontzeko behin-behineko irakasleen kontratazio-lehiaketako irizpideetan hala egitea.

4.5. **Hizkuntza-prestakuntza**

Unibertsitate-hizkuntzaren estandarizazioa prozesu etengabea da mundu-mailan, eta are biziagoa euskararen kasuan; izan ere, euskararen beraren estandarizazioa gertatzen ari den unean, unibertsitate-mailan ere euskararen estandarizazioa gertatzen ari da. Lan horretan, UPV/EHUK eginkizun garrantzitsua betetzen du; milaka ikasle ari dira gure ikastegietan euskaraz ikasten, etengabea da hizkuntza-behar berriei ematen dizkiegun erantzunak eta, une honetan, UPV/EHU da euskara espezializatuaren arloan instituziorik emankorrena eta biziena; unibertsitateak parte-hartze aktiboa dauka hizkuntzaren kodetze, eta elaborazio-lanetan.

Beraz, prestakuntza linguistikoa oinarrizko zeregina da UPV/EHUko eguneroko lanean, eta horrela izaten jarraitu behar du. Prestakuntza hori, baina, zenbaitetan unibertsitateko guztientzat bada ere, normalean desberdina da administrazio eta zerbitzuetako langileentzat, ikasleentzat edo irakasleentzat.

AZPko langileak, eta irakasle eta ikertzaileak: kualifikazioa eta hobekuntza

- a) Euskara Zerbitzuak (batez ere irakasle eta ikertzaileentzat) eta Euskararen arloko Errektoreordetzak (batez ere AZPko langileentzat) hobekuntza-ikastaroak antolatuko dituzte. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatuta dituzten langileen artean galdeketak egingo dira, beharrak eta lehentasunak zeintzuk diren ezagutzeko. Ikastaro hauen eskaintza beha-

rren arabera antolatuko da (AZPkoentzat, irakasleentzat, guztientzat) eta Campus ezberdinetan egingo dira. Urtero, urtearen azken bi hilabeteetan Euskara Zerbitzuak, Campusetako euskara-zuzendariekin koordinaturik, urte horretako irakasle eta iker-tzaileentzako eskaintza guztia argitaratuko du Euskararen arloko Errektoreordetzaren web orrian.

Horrez gain, Unibertsitateak hizkuntza hobetzeko eskaintzen dituen zerbitzuen berri emateko kanpaina bat egingo da irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean, zerbitzu hauek (*Ehulku, AZPidazki, EHUskaratuak,...*) ezagunakoak eta erabilgarriagoak izan daitezen.

Zerbitzu hauen erabilera zein den ezagutzeko, erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egingo da.

- b) **«Prestakuntza tailerrak»** osatuko dira, unibertsitateko ikastegi gehienetan. Tailer horiek ikastegietako irakasleentzat eta ikertzaileentzat izango dira, eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saileko irakasleek zuzenduko dituzte. Irakasle horien lana saritu egingo da, eta Irakasle-ikertzaileen arloko eta Euskararen arloko errektoreordeek zehaztu beharreko kreditu-kopurua onartuko zaie. Gutxienez, 8 irakaslek eman beharko dute izena tailerrak osa daitezen, tailerreko saioetan parte hartzeko konpromisoa hartuz. Ikasturte osoan iraungo dute tailerrek. Ikasgeletako saioak eta plataforma birtualekoak izango dira. Tailerrek prestakuntza etengabea eskainiko dute, dagokion ikastegiko errealitate akademiko eta soziolinguistikoari ongi egokitua.

Tailer horien egitekoak honako hauek izango dira:

- Antzeko irakasgaia duten irakasleak eta gaia lantzen duten ikertzaileak prestatzea estandarizazioaren hainbat alderditan, batez ere lexikoaren eta berbaldiaren alorrean.
- Plataforma interaktibo eta deszentralizatua sortzea mota orotako zalantza linguistikoak argitzeko, batez ere irakasmaterialak edo doktore-tesiak egitean sortzen direnak.

Ikasturtea amaitzean, tailerreko zuzendariak txosten bat igorriko dio Euskararen arloko errektoreordeari, egindako lanaren berri emanez. 2015eko udazkenean, bi urtetako esperientzia ikusirik, Euskara Batzordeak tailer hauen egoera aztertuko du, eta, aldaketaren bat aurreikusiz gero, Gobernu Kontseiluari proposatuko dio.

Ikasleen hizkuntza-prestakuntza

Gratu eskaintza onartzean, ikasketa planetan hautazko bi ikasgai aurreikusi ziren ikasleen euskara maila hobetzeko. Irakasgai horiek, gainera, pisu berezia dute Eusko Jaurlaritzak *euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko* onarturiko dekretuan.

Plan honetako lehen hiru urteetan, eskaintza horren jarraipena eta ebaluazioa egingo da, gradu guztietan euskarazko eskaintza hori bermatzen dela ziurtatzeko.

Ikastegiekin eta, ondorioz, Unibertsitateak, ikasleek euskaraz idazken eta defendatzen dituzten gradu-amaierako lanen kopurua zenbatekoa den aztertuko dute eta adierazle gisa jarriko da, jakiteko ikasketak euskaraz hasten dituzten ikasleetatik zein kopuruk bukatzen dituen graduko ikasketak gradu-amaierako lana euskaraz eginda.

Horrez gain, kanpaina bat egingo da, Ikasle Kontseiluarekin batera, UPV/EHUko ikasleek ezagutu ditzaten euskara hobetzeko unibertsitateak dituen baliabideak, batik bat web orriaren eskura daudenak (*Ehulku, AZPidazki, EHUskaratuak,...*).

4.6. Ikerketa eta zabalkundea

4.6.1. *Ikerketa euskaraz: ikertalde euskaldunak sustatzea*

Gaur egun hainbat hizkuntza erabili behar dira ikerketan, ezinbestean; batetik, munduan sortutako ezagumendu ahalik eta osoena jasotzeko, eta bestetik, norberaren ekarpenak komunitate zientifiko ahalik eta zabalenari transmititzeko. Gauzak horrela, ikerketa bera jarduera eleanitza da ezinbestean. Ikerketa hizkuntza batean —kasu honetan, euskaraz— egiteaz mintzo garenean, ordea, informazioa jaso eta zabaltzeaz haratago egin beharreko lan intelektualaz ari gara, hots, datuen bilketaz, azterketaz, eztabaidaz eta hausnarketaz; eta hori ikertalde bakoitzak bere hizkuntzan egin ohi du; edo, halakorik ez dagoenean, ikertzaile gehienek partekatzen duten hizkuntzan (gaur egun ingelesa da *lingua franca* jakintza-arlo gehienetan). Ikerketa euskaraz egiteaz ari garenean, beraz, ikerketarako lan-hizkuntza nagusi gisa euskara erabiltzen duten taldeez ari gara. Ezin baita euskarazko ikerketarik izan ikertzaileen lan-hizkuntza nagusia euskara ez den artean.

Plan honen sarreran gogora ekarri ditugun gure estatutuetako hainbat artikulutan azpimarratzen den euskararen normalizazioak, batetik, eta euskara unibertsitateko jardun guztietara zabaltzeko premiak/beharrak, bestetik, euskaraz egindako ikerketa garatzeko betekizuna dakarkigute. Eta honek lan-tresna nagusi gisa euskara erabiliko duten ikertaldeak indartzea eta sustatzea eskatzen du.

Gauzak horrela, plan honen barnean hiru urrats proposatzen dira plan honen hasierako hiru urtetan beranduenez burutzeko: lehenik, ezinbestekoa da UPV/EHUn egun diharduten ikertaldeak azterketa egitea, jakintza-arloa, bakoitzeko egoera zein den jakiteko, eta ikertalde euskaldunak zenbat diren eta zertan diharduten jakin ahal izateko, eta horretan UPV/EHUtik kanpo dauden ikertzaileekin ere lan egin beharko dugu. Bigarren urratsean, iritzi-bilketa bat egin behar da fakultate eta jakintza-arlo ezberdinetako ikertzaileen artean, ikertalde euskaldunak eta euskarazko ikerketa sustatzeko zein bide jorra daitezkeen aztertzeko. Eta hirugarrenik eta azkenik, plana amaitu aurretik euskarazko ikerketa sustatuko duten zenbait neurri proposatzen dugu, bai eta haiek indarrean jartzeko konpromisoa hartu ere.

4.6.2. *Zabalkundea*

Aurreko atalean, UPV/EHUK euskararen normalizazioarako egiten duen ekarpen garrantzitsua aipatu dugu, eta estandarizazio horretan oinarritzkoa da unibertsitateko irakasle eta iker-tzaileen lana, batez ere terminoen eta kontzeptuen kodetzeari dagokionez, arlo zientifikoetako corpus linguistikoa osatzen baita modu horretara.

Alde horretatik, eta indarrean dagoen Plan Estrategikoak dioen bezala, Unibertsitateak «*Zientzia-produkzioa euskal gizartera hedatzea sustatuko du dibulgazioaren bidez, eta bereziki euskaraz*» eta horretarako «*Iherketa-jardueran euskararen erabilera sustatzeko bitartekoak planifikatuko ditu*». Alegia, unibertsitateak zaindu eta bultzatu beharreko lana dugula euskaraz argitaratzen den ikerketa eta zabalkunde zientifikoa. Hau horrela izanik, urtean behin zientzia-dibulgazioko jardunaldiak euskaraz antolatuko dira unibertsitate-aurreko ikasleei, profesionalei eta publiko espezializatuari zuzendurik.

Euskararen arloko Errektoreordetzak tesiak euskaraz egiteko laguntzak ematen jarraituko du, bai eta unibertsitateko euskarazko aldizkariari ere.

Une honetan hiru aldizkari argitaratzen dira Euskararen arloko Errektoreordetzaren laguntzari esker: *Gogo*, *Ekaia* eta *Tantak*. Hurrengo urteetan, esfortzu berezia egin beharko da aldizkariok hobeto indexa daitezten eta argitalpen elektronikoa artikuluak euskaraz eta nazioarteko beste hizkuntza batean argitaratzeko; horretarako, baliabide ekonomikoez gainera, aldizkarietako zuzendaritzen eta Argitalpen Zerbitzuaren arteko elkarlana bultzatuko da.

Era berean, unibertsitatean erdaraz argitaratzen diren aldizkarietan euskarak duen presentzia ere bultzatuko da, batez ere nazioartekoak ez diren argitalpenetan. Gutxienez, urratsak emango dira artikulek hizkuntzaren agertze minimoa bermatuko duten euskarazko laburpenak jaso ditzaten eta euskaraz idatzitako artikuluak ere jaso ditzaten.

Euskaraz egiten dituzten ikertzaileei erraztasunak emango zaizkie publikatutako euskarazko artikulu zientifikoak ingelesera itzultzeko; indartu egingo da euskarazko produkzio zientifikoa UPV/EHUk sustatzen eta argitaratzen dituen argitalpen eta aldizkari zientifikoetan.

Bi urtez behin antolatzen den euskaraz egindako eta defendatutako tesirik onenaren sariari, Koldo Mitxelena izenekoari, eutsiko diogu. Saria, hitzarmenak dirauen bitartean, Euskaltzaindiarekin batera antolatu eta emango da. Eta ekitaldi horri loturik, aurreko urteetan defendaturiko doktore-tesi bat argitaratuko da Euskaltzaindiarekin batera.

Horrez gainera, euskaraz defendaturiko tesiak Argitalpen Zerbitzuan argitaratzea bultzatuko da, eta urtero aterako da deialdi bat euskarazko tesien epaimahaietan itzulpen-zerbitzuak ordaintzeko. Era berean, 2014ko amaierarako, doktore euskaldunen datu-basea egingo da, alde batetik euskarazko tesien epaimahaietan arazorik ez izateko, eta bestetik euskal ikertzaileen corpusa osatuz joateko.

4.7. **Euskararen erabilera unibertsitatean**

UPV/EHUko Estatutuetako **8. artikulua** honako hau dio:

1. *UPV/EHUko hizkuntza ofizialak euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, eta gaztelania dira.*

Alegia, gure unibertsitatea elebiduna dela, eta aurretik aipatu izan dugun bezala, edozein herritar eroso sentitu beharko litzateke berak nahi duen hizkuntzan. Helburu hori lortzearren, aurreko ataletan unibertsitateko esparru ezberdinak aztertu dira. Baina horiek banan-banan aztertzeaz eta eginiko proposamenez gainera, unibertsitate barneko nahiz kanpoko komunikazioa ere presente izan behar ditugu plan honetan.

Alde batetik, UPV/EHUren administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete beharreko baldintzak eta eskoletatik kanpo bi hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duten jarraibideak eta irizpideak aurreko Euskararen Plan Gidariaren luzapen-egokitzapenean zehazten ziren (Lehenengo eta Bigarren Eranskinak), eta horiek bete beharko dira. Alde horretatik, unibertsitateko komunitate guztiari emango zaio horien berri.

Bestalde, bigarren eranskinean honako hau ageri da:

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2013-2023) dokumentu-proposamenak dioen moduan, *«itzulpenei esker, eta gaztelania ia beti sorburu-hizkuntza izanda, bermatzen dugu nahi baino gehiagotan hizkuntza ofizial bien presentzia. Hemen ere, gainerako hizkuntza irizpideekin bezala, erakundean erakundeko eta sailean saileko erabilera planek eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideek argi eta garbi finkatuko dute, tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera, zer itzuli eta zer ez itzuli, zer sortu hizkuntza batean, zer bestean eta zer bietan, itzultzaileez ez ezik lanpostuko hizkuntza eskakizuna lortua duten langileez ere baliaturik elebitasuna bermatzeko. Itzulpenaren pisua, oro har, arindu beharko da sortze lanaren mesedetan»*. Lerro horietan iradokitako bidearen ildoari jarraitzeko moduak bilatuko dira, beste administrazioekin batera.

Zentzu horretan, eta ikusirik AZPidazki, Atezainak euskaraz eta antzeko lanetan oharrak eta abisu laburrak jartzeko eredu asko ageri direla, UPV/EHUko itzulpen zerbitzuko langileek ez dituzte horrelako oharrak euskaratuko, gehienez euskaraz eta gaztelaniaz jasotako oharrak zuzenduko dituzte.

Bestalde, UPV/EHU bertan zerbitzua espresuki eskaintzen duten Unibertsitateko egiturek (CAU, mantenuak eta antzekoek) «euskaraz lehen hitza» politika aplikatu behar lukete. Horrek esan gura du zerbitzu-emailea euskalduna denean hartzailearekin hasierako harremana egiten duenean euskara izango duela hobetsitako komunikazio-tresna. Gainontzekoen kasuan HE 2tik

gorako lanpostuetan, erabilera borondatezkoa denez, ohitura bera hartzeak euskaraz bizi nahi dutenei egiten dien mesede eta onuraz jakinarazi behar zaie.

Euskararen erabilera bultzatzeko, gainera, legeak ahalbidetzen badu, UPV/EHUko *Bilaketa* zerbitzuan, pertsonaren datuak ematean (ikastegia, saila, kargua, campusa, telefonoa eta posta elektronikoa), elebiduna baldin bada hala dela adieraziko da, eta horrela, pertsona horrekiko komunikazioa bi hizkuntza ofizialetan egin daitekeela jakingo da.

Erabiltzaileen parte-hartzea sustatzea

Jakina denez, hizkuntza-politikaren alorrean zaila gertatzen da hartutako erabakiak eta in-darrean dauden neurriak behar bezala ezartzea. Eta bereziki zaila gertatzen da, ezinezkoa ez esatearren, web orrien eguneroko elikatzea kontrolatzea, UPV/EHUren atarira migratu ondo-ren. Urteetako ohiturak, inertiak eta, orobat, utzikeria dira arazo horiek ulertzeko faktoreak. Arazoak konpontzeko, bi gauza behar dira: batetik, arazoa identifikatu eta kasuan kasuko atal eskuduna jakinaren gainean jarri; eta, bestetik, atal horien esku-hartze eraginkorra. Helburu horiek lortzearren, eta unibertsitateko kide guztien euskararen erabilerari buruzko iradokizun-ak, proposamenak edo kritikak bideratzeko, Euskal Hiztunentzako Bulegoa ezarri zen. Orain arte bezala, hango proposamen, iradokizun eta kritikei erantzuna eta, ahal delarik, konponbi-dea ematen jarraituko da. Gainera, Euskal Hiztunentzako Bulegoaren berri ematen duen kan-painaren bat egitea komeniko litzateke, bulegoa eta haren helburuak azalduz.

Webguneari dagokionez, gainera, hizkuntza batetik bestera ibiltzerakoan eta hizkuntza ba-tetik bestera erraz mugitzeko, ahal balitz orriak modu paraleloan edukitzea lortu behar genuke. Eta bertan, gune bat sortuko da, irekia eta interaktiboa, euskara bultzatzeko UPV/EHU-n.

Aplikazio informatikoetan eleaniztasuna bermatze aldera, gainera, jakinda unibertsitatean eskaera edota kudeaketa asko aplikazio informatikoen bitartez egiten direla, esparru horretan ere bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu beharra dago eta erabiltzaileak eroso sentitu behar du hizkuntza bietako edozein dela ere.

UPV/EHUren aplikazioak kanpoko enprekin erosteko edo garatzeko kontratua egiten de-nean, aplikazio eleanitza eta (gutxienez) bi hizkuntza ofizialetara egokituta egotea eskatuko du beti zerbitzua komunitate osoarentzat denean. Eskakizun horrek kontratuaren baldintzen

orrian agertu behar du, eta aplikazio berriaren erosketa kontratatzen duenak egiaztatuko du baldintza hau betetzen dela oniritzia eman baino lehen.

Dagoeneko erosita dauden aplikazio informatikoen euskara-maila hobetzea ere plan honen helburuen artean dago.

Bestalde, zentroetako Euskara Batzordeak berregin beharko lirateke ikastegietako eguneroan euskararen erabilera sustatzeko neurriak aztertu eta aurrera eramateko asmoz. Euskara Batzorde dinamiko eta ahaldunak beharrezkoak izango dira unibertsitatean euskararen erabilpena sustatzeko. Alde horretatik, unibertsitateko euskararen garrantzia eta erabilpena areagotzeko, 2014ko udaberrian Fakultate eta Eskoletako Euskara Batzordeekin eta Ikasle Kontseiluekin Plan honen bideragarritasuna sustatzeko dinamika parte-hartzaile bat abiaraziko da, ondoren horren emaitzaren berri emanez.

Azken hamarkadan, fakultate eta eskoletako hasierako bultzada eta ekimena galdu dute, agian hasierako funtzio nagusiak gaur egun gaingituak daudelako. Tokian tokiko euskaltzaileek lokarri bat izan behar dute eta Euskara Batzordeek baliagarriak izan behar dute euskararen aldeko dinamika bultzatzeko; besteak beste, hauek:

- Jakintza-arloetako unibertsitateko euskal liburuen erakusketak antolatu.
- Interneten euskarazko ekimenak bultzatu.
- Jakintza-arloetako euskararen berriak eman: posta-zerrenden bitartez eta aldizkari elektroniko bidez.
- AZP eta ikasleen laguntzarekin euskararen zirkuituak sustatu.
- Euskararen erabileraren aholkuak eta neurriak zaindu.
- Arlo profesionaletako euskararen aldeko ekimenak antolatu: topaketak, hitzaldiak, laguntzak, ...
- Irakaskuntzako beharrak (liburuak, ...) aditu.
- Euskaldunen arteko sare-lanak egin.
- Euskararen kalitatearen neurketa-lanak egin; hizkuntza-paisaia, erabilpena, liburugintza, ...
- Ikasleek euskararen inguruan duten harrera edo ikuspegia aztertu, zer ikuspegi duten unibertsitateaz eta euskaraz.
- Administrazioarako hizkuntza-irizpideak bermatu.
- ...

Zentroetako Euskara Batzordeetan, dagokion ikastegiko dekanotzako edo zuzendaritzako karguren bat egon beharko da.

Bestalde, Unibertsitateak abenduaren 3an «Euskararen Nazioarteko Eguna» ospatuko du euskararen inguruko hitzaldi edo saioen egitarau bat antolatuz; eta euskara sustatzeko egiten diren proposamenak aztertuko dira Euskararen arloko Errektoreordetzan.

Hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea kanpoko enpresek edo erakundeek eskainitako zerbitzuetan

Unibertsitatearen beste esparruetan ere hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzeko, jendaurreko zerbitzuak eskaintzeko UPV/EHUK kontratatuko dituen kanpoko enpresak edo erakundeak gai izan beharko dute zerbitzu horiek euskaraz emateko (tabernak, kopiagintza-zerbitzuak, liburu-dendak, paper-dendak, bidaia-agentziak, supermerkatua, eta abar). Eskakizun horrek kontratuaren baldintzen orrian agertu behar du, eta kontratatzen duenak jarraipena egin beharko dio.

4.8. Euskara Zerbitzua

Euskara Zerbitzua oinarrizko egitura da unibertsitate elebidun baten bidean. Haren ardurapean daude, besteak beste, ikasmaterialen berme linguistikoa, Argitalpen Zerbitzuko euskarazko lanen ikuskapena, terminologia corpora, hizkuntza-aholkularitza, irakasle nahiz AZPkoen prestakuntza linguistikoa, dokumentu administratiboen itzulpena edo aldibereko interpretazio-lanak egitea unibertsitateko foroetan.

Unibertsitatean egunero sortzen diren dokumentu administratiboen kopurua oso handia da, eta dokumentu horien itzulpenak nabarmen gaintitzen du Euskara Zerbitzuko Itzulpen eta Interpretazio Atalaren lan-ahalmena. Horrexegatik, dokumentu horietako asko itzultzeko lanak kanporatu egiten dira urtero, lehiaketa publikoaren bidez esleitzen diren

kontratuak eginez (Euskararen arloko Errektoreordetzako web orrian, Itzulpen eta Interpretazio atalaren txostenetan urtez urte ikus daitekeen bezala). Ez dago esan beharrik itzulpen guztien barneko kontrola handiagoa izateak onurak ekarriko lituzkeela, bai itzulpenen kalitatean, bai itzulpen-prozesuaren azkartasunean. Horregatik, egoerak ahalbidetzen duenean, komenigarria litzateke erreferentzia-plantillan beste itzultzaile postu bat gutxienez sortzea.

Eta antzeko zerbait esan beharko genuke ikasmaterialgintzaren arloan; izan ere, gero eta gehiago direnez ikasmaterialgintza sustatzeko deialdian parte hartzen duten irakasle elebidunak, esparru honetan ere premia berriak sortu dira. Kontratatutako pertsona bat lanean ari da Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean, aipatutako ikasmaterialak zuzentzen. Baina premia estrukturala denez, eta ez egoeraren araberakoa edo unean unekoa, zentzuzkoa dirudi lanpostu hori sortzeak.

Plan honetan ageri diren lan asko Euskara Zerbitzuko langileen eskuetatik pasatzen dira, dela itzulpen-lana, dela formakuntza-ikastaroa, dela itzulitako ikasliburuak gainbegiratzea, dela euskarazko liburu eta materialak gainbegiratzea... eta, alde horretatik, zerbitzu sendo eta ongi prestatua behar dugu. Izan ere, urteetako lana da itzultzaile ona formatzea, ikasmaterialen zuzentzaile ona izatea. Dugun zerbitzua hobetzen jarraitu behar dugu, oin sendo eta ongi formatu horietan eraikiko baitugu, neurri handi batean, unibertsitate elebiduna.

4.9. **Beste unibertsitate-erakundeekiko elkarlana**

Aurreko planetan eta Plan Estrategikoan zehazturik dagoen bezala, gizartean euskal kultura eta hizkuntza sustatu eta hedatuko duten jarduera sozialak eta kulturalak sustatuko dira, Akitaniako, EAeko eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateekiko sarea eta lankidetzaz sendotuz. Lankidetzaz-akordio horiei jarraipena egingo zaie eta beste erakunde batzuekin lankidetzaz-hitzarmen berriak sustatzeko ahaleginak egingo dira.

Bestalde, euskara erabiltzen duten gainerako unibertsitateekin koordinatu eta elkarlana bultzatuko da, hainbat jarduera martxan jarriz: euskarazko eskuliburuak, ikasmaterialak...

trukatu, hedakuntzako jarduerak burutu, doktoreen datu-baseak osatu, graduondokoak sustatu, ikerketa taldeetako lanen hedatzea bultzatu, eta abar.

Elkarlana bultzatuko da, UEUrekin batera berezko tituluen arloan edo koedizioetan egin den bezala.

Helburua, edozein modutan, sinergiak bilatzea izan behar du eta horri heldu behar diogu euskararen eta euskal kulturaren alde.

5.

Planaren indarraldia eta finantziazioa

Euskararen Plan honek bost urteko indarraldia izango du, 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 arte. 2015eko amaieran, helburuen betetze-mailaren jarraipena egingo da.

Plan honetan jasota dauden ekimenak garatu ahal izateko, Euskal Herriko Unibertsitateak bere aurrekontutik bideratuko ditu beharko diren baliabideak.

Baliabide horiek 2013 eta 2017 urte bitartean bideratuko dira bi iturri nagusitatik, UPV/EHUko ohiko aurrekontutik eta, batez ere, kontratu-programen bidez; oraindik indarrean dagoen kontratuaren eta etorkizunean adostu beharrekoaren artean.

Behar nagusiak honako hauek izango dira:

- Administrazio eta zerbitzuetako langileak: hizkuntza-eskakizunak, erabilera-plana eta ikastaroak.
 - Liberazioen ordezkapenak.
 - Lanordutik kanpoko euskara-eskolak.
 - Euskararen arloko Errektoreordetzak eta Euskara Zerbitzuak eskainitako zerbitzuak.
- Irakaseskaintza
 - Hitzarmenak graduondo eta berezko tituluak emateko.
 - Master amaierako lanen argitalpenak.

— Irakasle eta ikertzaileen oreka linguistiko eta akademiko handiagorantz.

- GAITZE programa.
- Lanorduetatik kanpoko euskara-eskolak.

— Euskarazko testugintza.

- Eskuliburuen itzulpenak
- Argitalpenak (edizioa, begiraleak, promozioa...)
- Erakusketak
- Zerbitzu digitalak

— Hizkuntza-prestakuntza.

- Prestakuntza-ikastaroak Irakasle, Ikertzaile eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileentzat.
- Prestakuntza-tailerrak ikastegietan.

— Ikerketa eta zabalkundea.

- Tesiak euskaraz egiteko deialdia.
- Euskarazko aldizkari zientifikoen argitalpenak bi hizkuntzatan (euskara/ingelese).

— Euskararen erabilera unibertsitatean.

- Erabilera-plana.

— Euskara Zerbitzua.

- Itzultzaile-interprete plaza berri bat.
- Ikasmaterialgintzako zuzentzaile plaza berri bat.

6.

Plangintzaren jarraipenerako eta ebaluaziorako adierazleak eta ekimenak

1. Administrazio eta zerbitzuetako langileak
 - 1.1. Planaren amaieran, AZPren hizkuntza-eskakizunek titulazioa talde bakoitzari zegokiokeen hizkuntza-maila eta derrigortasun-data gaindituaren ehuneko orekatua izango dute.
 - 1.1.1. Planaren amaieran, AZPko Lanpostuen Zerrendaren %65-70 gutxienez dago-kion hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data gainditua izatea.
 - 1.1.2. Plangintzaldian zehar titulazio talde bakoitzean izan behar diren derrigortasun-datak gutxienez talde horretako lanpostuen %55 izan beharko du.
 - 1.1.3. Planaren amaieran C, C/D eta III. Titulazio taldeko lanpostuen % 30ek 3. hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun data izango du ezarrita.
 - 1.1.4. Planaren amaieran A edo I Titulazio taldeko lanpostuen % 10ak 4. H. E. derri-gortasun data izango du ezarrita.
 - 1.2. Herritarren hizkuntza-aukera bermatzeko, jendaurreko lanpostuetan hizkuntza-eskakizunak egiaztatu dituzten langileak egotea.

- 1.2.1. Herritarrek, Administrazioarekiko harremanetan hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatua izan dadin, lanpostu horiei dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileak jarri.
 - 1.2.2. Jendaurreko zerbitzuetan (ikastegietako idazkaritzetan, erregistro-bulegoetan, Errektoreordetzetako zerbitzuetan, liburutegietan,...) dagoen egoera aztertu eta, aurreko puntuan aipaturiko helburua lortzeko, beharra antzematen den kasuetan derrigortasun-data berriak ezarri.
 - 1.2.3. Lanpostuen zerrendan agertzen ez diren aldi baterako premiak bete behar direnean, eta jendaurreko lanpostuak badira, kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna eskatu.
 - 1.2.4. AZPkoen hizkuntza-prestakuntza: urteko liberazioak (5 ordukoak, 2 ordukoak eta 3. HE lortzeari begirakoak zein barnetegiak) eskainiko dira eskatzen duten langileei.
 - 1.2.5. Euskararen erabilpena indartzeko, trebakuntza ikastaroak eskaini.
 - 1.3. Lanpostuen Zerrendatik kanpo diren aldi baterako kontratuetan dagozkien titulazio taldearen derrigortasun-dataren ehuneko bera izango da gutxienez.
 - 1.4. IVAPekin elkarlanean aritzea, hizkuntza-prestakuntzarako politika koordinatzea.
 - 1.4.1. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean aritu.
2. Euskarazko irakaseskaintza
- 2.1. Baldin eta eskaera nahikoa bada, gaur egungo graduetan eta graduondo profesionalizatzaileetan enborreko eta nahitaezko kreditu guztiak euskaraz eskaintzea.
 - 2.1.1. Plangintzaldiaren amaieran graduetan euskarazko eskaintzan kredituen %81etik gora izatera iritsi.
 - 2.1.2. Erraztasunak eman ikasleei beren lurraldean A eredia eskaintzen bada beste eruedetan ikasteko, beste lurralderen batean eskainiz gero.

- 2.1.3. 2015eko udazkenean euskarazko irakaseskaintza bermatze-mailaren jarraipena.
 - 2.1.4. Plangintzaldiaren amaieran euskarazko gradu-amaierako lan kopurua handitu.
- 2.2. Euskararen presentzia nabariagoa izateko, graduondoko ikasketetan neurriak hartzea.
- 2.2.1. Euskararen presentzia nabaria bermatu etorkizuneko graduondoko ikasketetan.
 - 2.2.2. Euskarazko unibertsitateko espezialista titulu berriak (berezko ikasketak) sortzea sustatu.
 - 2.2.3. Gehienbat gaztelaniaz eskaintzen diren masterretan euskarazko irakasgaiak sartzea.
 - 2.2.4. Lanbiderako eskuduntzak ematen dituzten master guztietan euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa bezainbestekoa izan.
 - 2.2.5. Plangintzaldiaren bitartean ezarriko diren graduondo profesionalizatzaileetan euskarazko eskaintza gaztelaniazkoaren parekoa izan.
 - 2.2.6. Master-amaierako lana: euskaraz idatzi eta defendatzen diren master-amaierako lanen kopurua neurtu eta handitu, epaimahai elebidunen eraketa bermatuz.
 - 2.2.7. Eskaera nahikoa duten graduondokoetan bi talde osatu, horietariko bat euskarazkoa.
- 2.3. Irakaskuntzaren eta Irakasmaterialen kalitate linguistikoa bermatzea.
- 2.4. Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboa bermatzea.
- 2.5. MOOC (Massive On Line Open Courses) Sarean Unibertsitate Irekian euskarazko irakasgaiak eskaintzea.
- 2.5.1. Euskarazko irakasgaien sareko Irakaskuntza-eskaintza irekian finkatu.

3. Irakasle eta ikertzaileen oreka linguitiko eta akademiko handiagorantz
 - 3.1. Irakasleen eta ikertzaileen plantillako irakasle elebidunen kopurua gutxienez %52ra igotzea.
 - 3.1.1. Irakasle elebidunen kopurua gutxienez %52ra igo.
 - 3.1.2. Gaur egun plantillan dauden irakasleei euskara ikasteko laguntzak eman eta ondoren lanpostuen soslaia aldatu.
 - 3.1.3. Laguntzak irakasle-ikertzaile guztiei euskara ikasteko. GAITZE programaren deialdia berrikusi eta berrabiarazi.
 - 3.2. Doktore titulua daukaten irakasle eta ikertzaile elebidunen kopurua gehitzea.
 - 3.2.1. Lanpostuen zerrendan dauden arduraldi osoko irakasle elebidunen %80 gutxienez doktore izan Plangintzaldiaren amaieran.
 - 3.2.2. Doktore titulua eskuratzeko 35 lizentziatarako deialdia.
 - 3.3. Jarduera Akademikoaren Planean kontuan izatea UPV/EHUren helburuekin bat etorritz II. Plan Gidarian eginiko ekarpenak.
 - 3.3.1. Euskaraz eginiko ekarpenak Jarduera Akademikoen Planean kontuan hartuko dira.
4. Euskarazko testugintza
 - 4.1. Eskuliburuaren itzulpenak sustatzea, batez ere premia handiak dituzten arloetan, baina beste arloak baztertu gabe.
 - 4.1.1. Urteko gutxienez 6 ikasliburu euskaratu.
 - 4.2. Euskaraz sortutako liburuak sustatzea.
 - 4.2.1. Legeak-Leyes bilduma, Limes bilduma, Euskal Literatura Saila bildumekin aurrera egitea.
 - 4.3. Unibertsitateko irakasleek ikasmaterialak eta ikasliburuak sor ditzatela bultzatzea, edo sortutakoa berrikusi eta eguneratzea.

- 4.3.1. *EHUskaratuak* corpora prestatzea eta online argitaratzea.
 - 4.3.2. GAIKA, UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak prestatutako gaikako glosarioak bil-tzen dituen corpora ere online argitaratu, hura kontsultatzeko aplikazioa pres-tatu eta kontaketa sistematikoa egin.
 - 4.3.3. Irakasleek ikasmaterialak sortzeko urtero deialdi bat egitea, eta beste bat uni-bertsitate-liburuetarako, gutxieneko exijentzia-maila baldin badute argitara-tuko direnak.
5. Prestakuntza linguistikoa
- 5.1. Hobekuntza-ikastaroak eskaintzea irakasle eta ikertzaileei eta administrazio eta zer-bitzuetako langileei.
 - 5.1.1. Hobekuntza-ikastaroak antolatu.
 - 5.1.2. Urtero, urteko azken bi hilabeteetan, Euskara Zerbitzuak, Campusetako euskara zuzendariekin koordinaturik, urte horretako irakasle eta ikertzaileentzako es-kaintza guztia argitaratuko du Euskararen arloko Errektoreordetzaren web orrian.
 - 5.2. **Unibertsitateak hizkuntza hobetzeko eskaintzen dituen zerbitzuen (*Ehulku, AZPidazki, EHUskaratuak,...*) berri ematea, ezagunagoak eta erabiliagoak izan dai-tezen.**
 - 5.2.1. Zerbitzuen berri ematea. Erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egitea.
 - 5.3. Prestakuntza-tailerrak eratzea.
 - 5.3.1. Prestakuntza-tailerrak ikastegi gehienetan eratu.
 - 5.3.2. Terminologia Sareak Ehunduz proiektuarekin jarraitu.
6. Ikerketa eta zabalkundea
- 6.1. Zientzia-dibulgazioko jardunaldiak euskaraz antolatzea.
 - 6.1.1. Unibertsitate aurreko ikasleentzat, profesionalentzat eta publiko espezializatu-rentzat, urtean behin zientzia-dibulgazioko euskarazko jardunaldiak antolatu.

- 6.2. Euskaraz eginiko ikerketaren oihartzuna handitzea.
 - 6.2.1. *Gogoa, Ehaia* eta *Tantak* aldizkariak hobeto indexatu eta argitalpen elektronikoan artikulua euskaraz eta nazioarteko beste hizkuntza batean argitaratu.
 - 6.2.2. Aurreko aldizkariotako zuzendaritzen eta Argitalpen Zerbitzuaren arteko elkarlana bultzatu.
- 6.3. Euskarazko tesiak sustatzea eta ikerketaren zabalkuntza bultzatzea.
 - 6.3.1. Arlokako tesi onenaren Koldo Mitxelena sariaren deialdia 2 urtean behin antolatatu.
 - 6.3.2. Euskaraz defendaturiko tesiak Argitalpen Zerbitzuan argitaratzea bultzatu.
 - 6.3.3. Urtero euskarazko tesien epaimahaietan itzulpen zerbitzuak ordaintzeko deialdi bat argitaratu.
 - 6.3.4. 2014. urtean doktore euskaldunen datu-basea abian jarri.
 - 6.3.5. Euskarazko tesien ingelesezko laburpenean laguntzeko deialdia egin eta horren kanpaina informatiboa egin.
- 6.4. Euskal Herriko eta kanpoko erakundeekin elkarlanean aritzea ikerketen eta zientziaren zabalkunde bultzatzeko.
- 6.5. Euskararen arloko Errektoreordetzak bultzatzen dituen aldizkari zientifikoaren indexazioa hobetzea.
 - 6.5.1. Euskarazko aldizkari zientifikoetan publikatzen diren artikuluen balorazioa UPV/EHUko JAPen, ikerketa deialdietan eta selekzio-prozesuetan.
- 6.6. Udako ikastaroetan euskararen presentzia gehitzea.
 - 6.6.1. Planaren indarraldiaren amaieran udako ikastaroetan euskararen presentzia handiago izatea.
- 6.7. UPV/EHU euskaraz aritzen diren Katedrekin eta Euskara Institutuarekin elkarlanean aritzea.
 - 6.7.1. UPV/EHU euskaraz aritzen diren Katedrekin elkarlanean aritu.

- 6.8. Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak eta euskararen gainean edo euskararekin lotuta dauden gaietan ikertzen duten taldeak sustatzea.
 - 6.8.1. Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak, euskararen gainean edo euskararekin lotuta dauden gaietan ikertzen duten taldeen kopurua eta talde horien ki-deen kopurua handitu.
 - 6.8.2. Euskara erabiltzen duten ikerketa taldeak, euskararen gainean edo euskararekin lotuta dauden gaietarako ikerketa deialdi berezituak egin.
7. Euskara erabiltzea unibertsitate barruko nahiz kanpoko komunikazioan
 - 7.1. Benetako elebitasuna bermatzea web orri berrian eta aplikazio informatikoetan.
 - 7.1.1. IKTen Gerenteordetzaren barruan garatzen diren aplikazio eta proiektu informatikoak bi hizkuntza ofizialetan eman.
 - 7.2. «Euskal Hiztunentzako Bulegoa» ezagutaraztea eta han jasotako ekarpen nahiz ke-xak aztertu eta erantzuna ematea.
 - 7.2.1. Ezagunagoa izateko komunikazio kanpaina egin.
 - 7.2.2. Zerbitzuaren erabiltzaileen kontaketa sistematikoa egin.
 - 7.2.3. Bulegoan jasotzen diren iradokizun eta ke-xak aztertu eta bide eman edota, ahal delarik, konponbidea eman.
 - 7.3. Kanpoko enpresek edo erakundeek eskainitako zerbitzuetan hizkuntza ofizial bien erabilera bermatzea.
 - 7.4. UPV/EHUK ezarritako irizpideekin bat etorriko den euskararen erabilera hizkuntza-paisaian (errotulazioa, oharrak, ...) bermatzea.
 - 7.5. Euskararen erabilera sustatzea.
 - 7.5.1. Bilaketa zerbitzuan, pertsonaren datuak ematean (ikastegia, saila, kargua, campusa, telefono-zenbakia eta posta elektronikoa), ahal izanez gero, elebi-duna den kasuetan hala dela adieraziko da.

- 7.5.2. Ikastegietako eta Campusetako Euskara Batzordeen garrantzia eta zereginak indarberritu.
 - 7.5.3. Planaren bideragarritasuna sustatzeko 2014ko udaberriaren dinamika partehar-tzailea burutu.
 - 7.5.4. Euskararen Nazioarteko Eguna UPV/EHU-n ospatu.
8. Euskararen azpiegitura
- 8.1. Itzultzaile-interprete plaza berri bat sortu eta kontratatzea.
 - 8.1.1. Itzultzaile-interprete bat gehiago ahalbait arinen izan. LPZren barruan sar-tzeko konpromisoa berretsi.
 - 8.2. Ikasmaterialgintzako zuzentzaile plaza berria sortu eta kontratatzea.
 - 8.2.1. Euskarazko ikasmaterialen hizkuntza-begirale eta zuzentzailearen lanpostua sortzeko premia eta ezinbestekotasuna berretsi.
9. Euskara eta euskal kultura ikertzeko, garatzeko eta sustatzeko UPV/EHU eragile aktibo izatea.
- 9.1. UPV/EHUrekin euskara eta euskal kulturaren gaineko hitzarmenak sinatu dituzten erakundeekin lankidetzak finkatzea eta beste erakunde batzuekin lankidetzak hitzarmen berriak sustatzea.
 - 9.1.1. Gaur egungo lankidetzak akordioen jarraipena finkatu.
 - 9.1.2. Erakunde batzuekin lankidetzak berriak sustatu.
 - 9.2. Unibertsitate komunitatearen barruan gure hizkuntzaren erabilera bultzatzeko, eus-kara erabiltzen duten gainerako unibertsitateekin batera horri begirako jarduerak abian jartzea.
 - 9.2.1. 2010ean 'Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibers-itatearen, Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko lankidetzak-Hitzarmena' izenekoan uni-bertsitateko jardueretan euskara sustatzeko iniziatiba eta jarraipena izan.

10. Ikasleen eskubide linguistiko-komunikatiboak bermatzea eta euskararen erabilera normaltzeko egitasmoetan parte-hartze zuzena izatea.
 - 10.1. UPV/EHUko ikasleek daukaten euskarari buruzko pertzepzioa eta erabileraren inguruko inkesta burutzea.
 - 10.1.1. Beranduenez 2014-2015 ikasturtean ikasleek duten euskarari buruzko pertzepzioaren eta erabileraren inguruko inkesta burutu zentroetako Euskara Batzordeetan, eta gero UPV/EHUko Euskara Batzordeak, Ikasleen Kontseiluarekin batera, azterketa orokorra egin.
 - 10.2. Ikasleen inizatibaz sortutako euskarazko ekimenak sustatzea.
 - 10.3. UPV/EHUrak kanpotik etorritako pertsonen euskal kulturaren eta hizkuntzaren inguruko harrera ematea.
 - 10.3.1. Euskara eta euskal kulturaren ezagutza sustatzeko ikastaroak eskaini.
 - 10.3.2. Kanpotik etorritakoei euskararen egoeraren berri eman, oro har nahiz UPV/EHUan.
 - 10.3.3. UPV/EHUko ikasleen artean hizkuntza-trukeak bideratu (berba lagun, hizkuntza-trukeen poltsak, ...).